ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2009ko otsailaren 23a > Astelehena > VII. urtea > 222. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net

"Nerabeek gustatzen zaien pertsonari nola gerturatu jakin gura izaten dute"



**Eider Goiburu**
Hezitzailea > 08

**G2a** **Nancho Novo aktoreari elkarrizketa** > 30

**EKONOMIA**
**Cope irratia zigortu dute Batasuna eta Eroski lotu zituelako** > 06

**PRESOAK**
**Ertzaintzak galerazi arren, harrera egin zioten Amaia Arrietari** > 16

**ARRASATE**
**Jaurlaritzak Uribe auzoko kutsadura aztertuko du** > 16

**ZERBITZUAK** > ZAINTZA

## Ibarrean 60 udaltzain daude

Herriaren arabera, desberdina da ematen duten zerbitzua > 03

**FUTBOLA** > PREFERENTEA

## Aretxabaletak Pasaian galdu eta ezin izan du lidergoa lortu

Bigarren zati hasieran egin zuen Pasaiak aurreneko gola, korner batean. Igartuak lortu zuen berdinketa, eta bigarrenaren bila joan zen Aretxabaleta. Baina falta batean lo hartu eta etxekoak aurreratu ziren berriro. Berdintzeko beste bi aukera on izan zituzten, baina atzera ere Pasaiak egin zuen gola. > 22

**OÑATI** > GARRAIOA

## Langileen autobus zerbitzua

Udalak, Aldundiak eta enpresek sortu dute Lanbus > 05



**ERDITZE ARRAKASTATSUA** Aretxabaletako erditzeak irabazi zuen atzoko, domeka, Aratusteetako sari nagusia. JOSETXO ARANTZABAL

**JAIAK** > ARATUSTEAK

# Indarrez birsortu dira ibarreko mozorro jaiak

**ZAPATUA** Arrasaten eta Bergaran Aratuste-zapatuko jaiak urtez urte indar handiagoa hartzen dihardu

**ARETXABALETA** Aretxabaletako domekako festa ibarreko sonatuena da oraindik ere > 11-15

Aretxabaletako Aratusteak jendetsuenak eta mozorro landuenak dituztenak dira oraindik; liderrak dira horretan ibarrean.

Baina, kontuan hartu beharrekoa da bai Bergaran eta batez ere Arrasaten, zapatuko mozorroen jaiak indar handia hartzen diharduela. Hain zuzen ere, herri askotan jai zoro eta parte hartzaile hori martitzenetik zapatura mugitzeko apustua emaitza ona ematen dabil.

**BERGARA** > ERRETIRATUAK

## San Joxepe, bazkideek kudeatuta

San Joxepe egoitza elkarteko bazkideek gestionatuko dute urtebetez; batzarrean erabaki dute astean > 17

M-1
EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2009

Elkarrizketak hautagaiekin GOITBn
Goiena Magazinean: 19:45, 21:15 eta 23:45

DATOZEN ELKARRIZKETAK:
> Ezker Abertzalea > Otsailak 23, astelehena
> PSE-EE > Jesus Egiguren > Otsailak 25, eguaztena
> EAJ > Joseba Egibar Otsailak 27, egubakoitza

Goiena



Danbakako DVDa opari. Nahi?
Zoaz 7. orrialdera

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 03
**Ekonomia** > 06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Telebista-irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39
**Azkena** > 40

# 25 URTEURRENEKO JAIALDIA

ERRITMIKOA
ariznoa elkartea bergara
www.ariznoaelkartea.com

BERGARAKO PILOTALEKUAN

Martxoak 1 17:00

ggf

SARRERA 3 €



Almudena Cid

aukeran dantza konpainia



acroindar

SAMU CREW



Ariznoako Gimnastak,
Euskadi eta Nafarroako
Klub federatuak

SUPER AMARA

Udal Kirol Zerbitzua Bergara

RESTAURANTE LASA JATETXEA

Loradenda
Lorak
Landareak
Opariak
GOROSTI

INDUSTRIAS ZANGUITU

50 1959 / 2009 GOIZPER
GOIZPER S. COOP.

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARIGAR-Pi, S.L
PRODUKTU PROFESIONALAK:
- Garbitasuna, desinfekzioa, etab.
- Ikuztegia
- Baxera-detergentea
- Zelulosak, etab.

LETE TOLDOAK

**ZERBITZUAK** > HERRI ZAINTZA

# Aste bukaeretan jende gutxiago, baina udaltzainak lanean

**JAI EGUNAK** Arrasaten egunero 24 orduz egiten dute lan; Bergaran 22:00ak arte zapatu eta domeketan

**ZARATAK** Arrasaten gauez tabernetako eta lokaletako zaratengatik jasotzen dituzte kexa gehien

**ISUNAK** Aste bukaeretan auto gutxiago ibiltzen denez, gaizki aparkatzeagatik ere isun gutxiago ipintzen dute

**ZERBITZU GABE** Elgetan, Aramaion eta Leintz Gatzagan ez daukate inolako udaltzain zerbitzurik

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Udaltzainen ardura herria zaintzea da: herritarren segurtasuna bermatzea, zirkulazioa antolatzea, udal ordenantzak betetzen diren ala ez kontrolatzea eta babes zibila. Ibarrean Leintz Gatzagan, Elgetan eta Aramaion ez dago udaltzainik; eta beste muturrean dago Arrasate, egunero 24 orduz udaltzain zerbitzua duena.

Udaltzainak kalean ikusten ditugu aste barruan, baina aste bukaeran gutxiago. Izan ere, ibarreko herri batzuetan zapatu eguerdira arte egiten dute lan. Hortik aurrera arazorik izanez gero ertzainengana jo behar da.

Baina, badira bi herri zapatu arratsaldeetan eta jai egunetan ere zerbitzua eskaintzen dutenak: Bergara eta Arrasate. Berria da aste bukaeretako zerbitzua Bergaran. "2004an lantaldea murriztu eta zapatu arratsaldeko zerbitzua kendu zen. Orain, berriz hasi gara zapatu arratsaldeetan eta baita domekan ere", azaldu digu orain udaltzainen arduradun lanetan dihardituen Jon Ander Arriolak. Honen esanetan, "premia bazegoen eta herritarrek eskertzen dute aste bukaeran udaletxea zabalik izatea eta norbait egotea".



Aste barruan baino auto gutxiago ibili arren, asteburuetan ere zirkulazioa kontrolatzen dute udaltzainek Bergaran. IRATI AGIRREAZALDEGI

**ASTE BUKAERAN JENDE GUTXIAGO**

Arrasaten ere badira urte batzuk aste bukaeran zerbitzua eskaintzen dutena, egunez ez ezik baita gauean ere. Arrasateko udaltzain buru Jose Luis Etxebarriak esan digu asteburuetan Arrasate hustu egiten dela; hortaz, udaltzain gutxiago egoten da. "Gauetan, aste barruan, jende askorik ez da ibiltzen kalean, baina egubakoitzetan eta zapatuetan bai eta ondorioz, istripu gehiago izaten da, zaratak ere bai, tabernetan, gazteen lokaletan…", esan digu.

Jon Ander Arriola ere bat etorri da esatean jendea aste bukaeretan kanpora joaten dela, hortaz, lana lasaiagoa dela: "Aste barruan badaude errutinaz egiten diren lanak: eskoletako sarrera-irteeren kontrola, zirkulazioarena, obrena… Zapatuetan ere badago mugimendu apur bat, baina domeketan apenas".

Bergarako udaltzainak aste bukaeretan eta jai egunetan lanean hasi direnetik dei asko jasotzen dutela esan digu Arriolak: "Jendeak deitzen du esaterako garaje aurrean auto bat aparkatuta dagoela. Hasieran isun gehiago ipini arren, konturatu direnean aste bukaeretan ere lanean dihardugula nabarmen jaitsi dira. Lehen, ez geundenean, baziren kale batzuk non ohituraz gaizki aparkatzen zen. Arruriagan Bidekurutzetan, Zabalotegirako aldapan…".

Gauez ez dira egoten egun berezietan ez bada. Kontrolatzen dute adin txikikoen tabernetarako sarrera. Udalean jakinarazten dute dagokion batzordetik esku hartzeko. Kontrolatzen dute ere terrazetan eskatutakoa baino mahai eta aulki gehiago dauden.

**GAUEZ ZARATAK KEZKA**

Arrasaten gauez ere egoten dira lanean udaltzainak, eta erronda egin eta arazorik sumatuz gero edo kexarik jasotzen badute, neurriak hartzen dituzte. "Tabernetan, ordutegiari dagokionean, inguruko herriekin denek ordu berdinetan ixteko akordiorik egin ezean, guk ezin dugu ordutegien kontrola oso zorrotz egin, baldin eta bizilagunak kexatzen ez badira. Tabernak ixteko ordutegi zorrotza ipiniz gero, jendea hasiko litzateke beste leku batzuetara joaten eta istripu arriskua handituko litzateke eta hori ere kontuan hartu behar da", esan digu Jose Luis Etxebarriak.

Tabernekin lotuta, zaratak ere izan ohi dira gauetako arazo. Udaltzain buruaren esanetan, "zarata dagoenean eurekin hitz egiten dugu eta gero bideratzen dugu arazoa Udal barruan dagokion zerbitzura, arazoa nola konpon daitekeen jakiteko. Isunik ez da ipintzen momentuan, baina Udalean hartzen da erabakia, lokala ixtea ere izan daitekeena".

DATUA

**60**

**UDALTZAIN**

Ibarrean guztira 60 udaltzain daude eta hainbat herritan gehiago hasiko dira laster. Gehien Arrasaten daude, 26, eta gutxien Antzuolan, bakarra dago eta aste barruan egiten du lan.

## Udaltzain zerbitzuen ordutegiak

| HERRIA | ASTEGUNETAN | ZAPATUETAN | DOMEKETAN |
|---|---|---|---|
| ANTZUOLA | 08:00-13:00/15:00-18:00 | -- | -- |
| ARETXABALETA | 08:00-21:00 | 08:00-13:00 | -- |
| ARRASATE | 24 orduz | 24 orduz | 24 orduz |
| BERGARA | 06:00-22:00 | 06:00-22:00 | 10:00-22:00 |
| ESKORIATZA | 08:00-21:00 | 08:00-13:00 | -- |
| OÑATI | 07:00-21:30 | 07:30-13:30 | -- |

IBARREKO GAINONTZEKO HERRIETAN EZ DAGO UDALTZAINIK.

Udaltzainak isunekin lotzen ditugu gehienok, aparkaleku isunekin batez ere. Arrasaten esan digute horrelako isun gutxiago ipintzen dela aste bukaeran, eta Bergaran ere eurak lanean daudenetik modu horretako arau hausteak gutxitu egin direla. Gainera, seminarioa aparkaleku bihurtzen dute aste bukaeretan eta horrek arazoa arintzen du.

**ZAPATU EGUERDIRA ARTE**

Ibarreko gainontzeko herrietan zapatu eguerdira arte egoten dira Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan, eta Antzuolan egubakoitzean amaitzen da udaltzain zerbitzua. Udaltzain bakarra dute Antzuolan eta jakinarazpen lanak egiten ditu batik bat, baita brigadakoekin batera konponketak ere. Oñatin bada asmorik aurrerantzean aste bukaeretako zerbitzua ipintzeko, baina noiz izango den ez dakite.

Udaltzainak aste barruan edo aste bukaeran herritarroi laguntzeko gertu.

**GERTAERA** > ARRASATE

# Ertzaintza Bedoña auzoko Zabale baserrian egindako lapurreta ikertzen dabil

Antzinako baserri horretatik hainbat altzari eraman zituzten joan den astean, zapatu eta domeka bitartean; ikerketak zabalik jarraitzen du

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Aspaldian lapurreta asko egiten dabiltza gure ibarrean. Saltokiak eta tabernak dira ohikoetako batzuk, baina bestelakoetan ere egin izan dituzte. Azkenetariko bat (Aretxabaletako Eroskin, asteburuan gertatutakoaz gain) Arrasateko Bedoña auzoan, Zabale baserrian, egin zutena da. Joan den asteburuan izan zen hori, zapatu eta domeka artean.

Zabale baserrian ez da aspalditik inor bizi, eta badirudi horretaz jabetuta, lapurrak lasai asko ibili zirela gura izan zituzten gauzak eramaten. Hala argitu du Ertzaintzak.

**ASPALDIKO ALTZARIAK**

Baserriko jabeetako bat domekan konturatu zen ateko sarraila indarrez irekita zegoela. Hala, Ertzaintzara deitu zuen salaketa jarri eta ikerketak egin zitzaten.

Zabale baserria historia ondare moduan izendatuta dago eta haren gaineko lehenengo idatziak XIV. mendekoak dira. Aspaldiko altzari eta gailu asko gordetzen ditu bere baitan, eta horietako asko eraman zituzten lapurrek.

> ZIRKULAZIOA

### Bi atxilotu Bergaran, alkoholemian positiboa ematearren

Ertzantzak ohiko alkoholemia kontrolak jarri ditu asteburuan errepideetan. Horren ondorioz, 38 gidari atxilotu ditu Euskal Autonomia Erkidegoan asteburuan, alkoholaren eraginpean gidatzeagatik.

Horietako bi Debagoienean atxilotu dituzte; bata zapatuan eta bestea domekan, baina biak Bergaran.

Bestela, domeka iluntzera bitartean ez da ibarrean zirkulazio arazo berezirik izan.

**EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2009**

> PSE-EE

### Sozialistek larrosak banatu zituzten Arrasaten eguenean

Ohitura duten moduan, sozialistak Arrasateko kaleetan barrena ibili ziren eguenean., eta larrosak banatu zizkieten herritarrei.

Besteak beste, Gipuzkoako zerrendan bosgarren dagoen Miren Gallastegi, Oñatiko zinegotzi Blanca Roncal, Arrasateko zinegotzi Paco Garcia eta Gipuzkoako senatari Luis Valles ibili ziren kalean herritarrei arreta egiten.

> AGERRALDIA

### Eguenean 'Borroka eguna' lelopean kale agerraldiak izan ziren

Hainbat herritarrek deituta, eguenean bi kale agerraldi egin zituzten Arrasaten. *Borroka eguna* lelopean antolatu zituzten, D3M eta Askatasuna plataformak legez kanpo utzi izanagatik.

Eguerdikoan eta iluntzekoan, bietan, Ertzaintzaren presentzia handia izan zen; eta iluntzean tentsio uneak bizi izan ziren Ertzaintzaren furgonetak Herriko Plazan eta Seber Altuben abiadura handian ibili zirelako.

**EZKER ABERTZALEA** > 'URREZKO BOTOA'

## Erabateko aldaketa egin gura du Ezker Abertzaleak

Ezker Abertzaleko kideek 'Urrezko botoa' eskatu zuten, egoera politikoa aldatzeko

**I.B.** > OÑATI

Atzo, domeka, Oñatiko Ezker Abertzaleko hainbat kidek ekitaldi-solasaldia egin zuten gaztetxean iluntzean. Herritar guztiei zabalik zegoen ekitaldia, eta asmoa zen hauteskundeei begira Ezker Abertzaleak egin duten hausnarketa azaltzea.

Ezker Abertzaleko kideek azpimarratu zuten gainontzeko alderdi guztiek ez dutela aldaketarik gura: "Ekarriko duten aldaketa bakarra agintea hartuko dutenen izen-abizenak izango dira, besterik ez". Horregatik, *Urrezko botoa* eskatu zuten, "gaur egungo marko eta egoera politikoa aldatzeko aukera bakarra" delako. Eta aldaketa horren premia "ezinbestekoa" dela azpimarratu zuten.

Horrekin batera, ezker abertzaleko legez kanporatzea beste behin salatu zuten.



Ezker Abertzalearen aldeko ekitaldia egin zuten gaztetxean. J.A.




Juan Jose Ibarretxe EAJko lehendakarigaia egubakoitzean, Udalan. MIREN ARREGI

**EAJ** > ENERGIA IRAUNKORRA

## Iraultza berdea izan zuen berbagai Ibarretxek Udalan

Energia iraunkorren alde egitea da krisi ekonomia gainditzeko jeltzaleen ardatz bat

**I.B./MIREN ARREGI** > ARRASATE

Juan Jose Ibarretxe lehendakarigaia Arrasateko Udala auzoan izan zen egubakoitz goizean, kanpaina honetan Debagoienera egin duen lehenengo bisitan. Joseba Egibar eta beste alderdikide batzuk izan zituen alboan; eta energia berriztagarriak eta garapen iraunkorra izan zituen hizpide. Lehendakarigaiarenerako esanetan, ikerketarako, garapen eta berrikuntzarako laguntzak %100ean gehituko dituzte, eta 4.000 lanpostu berri sortu.

**ARZALLUS, ARAMAION**

Horrez gain, eguenean Xabier Arzallus Aramaion izan zen. Ibarretxek ez duela sekula PSE-EErekin gobernurik osatuko esan zuen jeltzale beteranoak.

Hirusta
Jatetxea
Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

**EA** > BOTO BALIOGARRIA ESKATU ZUTEN

## Alkartetxearen 22. urtemuga ospatu zuten alderdikideekin

**I.B.>** > ARETXABALETA

Egubakoitzean Aretxabaletako EAk ospakizuna egin zuen Herriko Plazan, Alkartetxean. Ekitaldia Lore Martinez zinegotziak gidatu zuen, eta Edorta Mendieta zinegotziak eta Iñaki Galdos diputatuak esku hartu zuten. Mendietak gogoratu zuen EAk herrian bi alkate eta 12 zinegotzi izan dituela, eta erakutsi dutela ardurak banatuz, Udala kudeatzen dakitela.

Galdosek boto baliogarria eskatu zuen: "EAJren ald egitea ez da botu abertzalea ematea. Eta Ezker Abertzaleari eskatzen diogu ETAri esateko armak uzteko".




Argazkian Lore Martinez, Edorta Mendieta eta Iñaki Galdos, Alkartetxean. J.A.




Ekimenean parte hartu duten enpresetako, Oñatiko Udaleko eta Aldundiko ordezkariak. JASONE ZABALA

**GARRAIOA** > AURKEZPEN EKITALDA

# Lanbus, langileendako autobus zerbitzuaren aurkezpena egin dute

Herriko langileak euren lanpostuetara eramango dituen autobus zerbitzua da; mugikortasun planaren barruan kokatzen da ekimena

**JASONE ZABALA** > OÑATI

"Berritzailea" eta "parte hartzailea", horrelaxe definitu zuen Lourdes Idoiaga Oñatiko alkateak joan den egubakoitzean egindako Lanbus proiektuaren aurkezpenean. Martxoaren 2an abiaraziko da eta mugikortasun planean sartuta dago.

Helburua da, herriko langileak lanera autoz joan beharrean autobusez joatea eta bide batez, herriko zirkulazioa, jasangarriagoa, erosoagoa eta osasungarriagoa egitea. Ekimen hori aurrera eraman duten erakundeen ordezkariak egon ziren aurkezpenean, hala nola, Lourdes Idoiaga Oñatiko alkatea, Fagor Industrialeko presidenteorde, Mikel Perez, Ulma Packaging kontseilu errektoreko presidente, Karmelo Arregi, LKS enpresako mugikortasun arduradun, Patxi Larrañaga eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Garraio Publikoko zuzendari, Pilar Arana. Guztiek aurrerapausutzat jo zuten proiektua berri hori.

Horrela, Idoiagak ekimen berri horren onurak zeintzuk izango diren azaldu zuen: "Enpresek, aparkalekuak beste aktibitate batzuetarako erabili ahal izango dituzte eta baita Oñatin , herri erdialdeko trafikoa eta auto ilarak gutxituko dituelako". LKS enpresa arduratu da diseinuaz eta mugikortasun arduradun, Patxi Larrañagak esan zuen Lanbus proiektua erreferentzia izango dela, eta enpresen inplikazioa ere goraipatu zuen.

Enpresa horietan dabiltzan 670 langileetaz gain, gainerako herritarrek ere erabili ahal izango dute Lanbus.

**BI IBILBIDE**

Autobus zerbitzu horrek bi ibilbide izango ditu: alde batetik, Ulma Packaging, Piping eta Construccionera joango dena, eta bigarrena, Ulma Construccionek Oxiñurdinen duen lantegira eta Fagor Industrialera joango dena. Erabiltzaileak 15 minutu baino gutxiagoan etxera edo lantegira iristea da helburua.

etxeko leihotik



**Ubane Madera** > 'arrasate@goiena.com'

# Eskerrak euskara inposatu egiten dugun

Munduko 6.000 hizkuntzetatik 2.500 galtzeko arriskuan daude; eta hizkuntza ahulenen edo kaltebe
ren artean dago euskara. Aldiz, katalana da Europako hizkuntza gutxituen artean indartsuena. Unescok (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) aditzera eman du hori. Orain galdera da: eta zergatik dago bien artean halako aldea? Erantzuna, nire ustez, erraz-erraza da: han eta hemen kalean ibili, denda/taberna/erakunde batera sartu eta berehala ikusten da: Katalunian ahoan darabilte euren hizkuntza.

Euskadin, berriz, bakarrik euskara ahoan erabilita, leku oso gutxitara joan ahal gara. Eta leku askotan, gainera, horregatik egurra eman diezagukete.

Eskerrak, ba, euskara inposatu egiten dugun. Eskerrak euskara erabiltzera behartzen dugun. Eskerrak espainola baztertzen dugun euskararen alde. Horri guztiari esker dago euskara dagoen tokian, ezta?

Horrenbeste urtean entzun izan ditugu politikari/bizilagun asko halakoak esaten... Ezen askok hori sinesteaz gainera, euskara gorroto dute. Tristea, tristea oso. Kultura hezkuntza apurtxo bat duenak argi ikusi beharko luke hizkuntza bat gizarte osoaren ondarea dela eta ez arma politikoa. En fin.

**"Euskadin bakarrik euskara ahoan erabilita leku gutxitara joan ahal gara"**

**> Azken hiru belaunaldietan** **200 hizkuntza desagertu dira munduan; ez nuke nahi nire kontzientzian eta ezta nire bizitzan ere ezagutzerik gura euskara desagertu edo maila folklorikoan geratu denik. Ez nuke inola ere halakorik nahi**

**> Normalean** **hizkuntza nagusia ahalegintzen da txikia desprestigiatzen, haren praktikotasuna zalantzan ipintzen, hain zuzen ere; baina, benetan hala balitz, hizkuntzok benetan praktiko ez balira, ez lukete bizirik iraungo orain arte, ezinezkoa litzateke**

**ZERBITZUAK** > EGOKITUTAKO KUTXAZAINAK

# Kutxak itsuendako lehen kutxazainak ipiniko ditu; gurean Arrasaten

Apirilaren 15erako hamar kutxazain egokituko dituzte, Arrasateko Garibaikoa bat; urte amaierarako ehun izango dira

**J.Z.** > BERGARA

Ekimen berri hori datorren apirilaren 15ean martxan egongo da Gipuzkoako hainbat herritan, tartean Arrasaten, Garibai kalean dagoen kutxazainean. Urte bukaerarako baina, ehun kutxazain egongo dira egokituta hainbat herritan itsuendako edo ikusmen arazoak dituzten pertsonendako.

**AHOZKO SOFTWAREA**

Itsuendako prestatuko dituzten kutxazainek ahozko software bat eramango dute barnean; horrela, erabiltzaileek, kutxazainean egongo den entzungailu baten bitartez, pantaila bidez egiten den ekintza ahoz egin ahala izango dute, bai euskaraz eta baita gaztelaniaz ere. Kutxak, ONCErekin elkarlanean, jarri du martxan kutxazain pilotua Donostian. Kutxazain pilotu horrek izandako arrakasta ikusita, itsuek erabili ahal izango dituzten kutxazain gehiago ipiniko dituzte; guztira hamar izango dira eta horietako bat Arrasateko Garibai kalean Kutxak duen kutxazainean izango da; besteak Donostian, Irunen, Errenterian, Eibarren, Zarautzen, Beasainen eta Tolosan ipiniko dituzte.

Urte amaierarako ehun kutxazain moldatzea da asmoa, eta hemendik aurrera ipintzen den kutxazain berri bakoitza egokituta egongo da.

> GERTAERA

## Adingabeko bat atxilotua, gida baimenik gabe gidatzeagatik

Bergarako Ertzain etxeko agenteek 17 urteko gizonezko gazte bat atxilotu zuten pasa den eguenean, auto bat baimenik gabe gidatzeagatik.

Gertakaria eguenean goizaldeko ordu biak aldean gertatu zen, GI-2620 errepidean, Arrasaten. Ordu horretan, Ertzaintzaren hiritarren segurtasunerako patruila batek aipatutako errepidetik zihoan auto bat geldiarazi zuen eta agiriak eskatu zizkioten gidariari. Gazteak emandako datuak egiaztatu ostean, zegokion baimenik ez zuela ziurtatu zuten ertzainek eta, hortaz, gidaria atxilotu egin zuten.

> GERTAERA

## Hiru atxilotu, lapurreta egiten saiatzeagatik Aretxabaletako Eroskin

Egubakoitz goizean Aretxabaletako Mitarte kaleko Eroskin lapurreta saiakera egin zuten.

Eroskiko langileek susmagarritzat hartu zituzten hiru pertsona, eta arduradun batek beroki barruan kosmetikako produktuak gordetzen ikusi zituen. Poltsikoak husteko eskaerari muzin egin ostean, Eroskiko ateak itxi eta Ertzaintza deitu zuten. Ertzainek gauzak lapurtzen saiatu zirela egiaztatu eta atxilotu egin zituzten. Hortaz, 32 urteko emakume eta gizon bana, eta 35 urteko gizon bat epaitegira deitzeko zain daude lapurreta indarkeriarekin egitearen akusaziopean.



Sakeleko telefonoa erabilita, lantokiko edo bestelako ateak autotik zabal daitezke. JOSETXO ARANTZABAL

**ENPRESA** > BERRIKUNTZA

# Urruneko aginteraren ordez, telefonoa

Ateak telefono mugikorren bidez zabaltzeko sistema landu dute Antzuolako Matz-Erreka enpresak eta Mondragon Unibertsitateak

**E. MENDIBIL** > BERGARA

Ateendako automatismoak egiten dituzte Antzuolako Matz-Erreka enpresan eta ateak telefono mugikorren bidez zabaltzeko sistema garatu dute Mondragon Unibertsitatearekin elkarlanean. Inhibitzaileak dauden tokietan edo urruneko agintendako irrati-frekuentzia guztiak okupatuta dauden lekuetan ezinezkoa da urruneko agintea erabiltzea. Arazo hori gainditzeko soluzioa zera da: ateak telefono mugikorren bidez zabaltzea.

Ate automatikoek plaka elektroniko bat daukate atea noiz ireki eta noiz itxi kontrolatzeko. Plakan *switch* bat arduratzen da atea abiarazteaz. Switch-a botoi baten edo urruneko agintearen bidez aktibatzen da. Sistema berriarekin, telefono-txartela jartzen zaio plakari, eta txartelak aktibatzen du *switch*-a, eta ondorioz, atea.

Ateei jartzeko aplikazioa Mondragon Unibertsitatean garatu dute. MUKo Egoitz Arrutiren hitzetan, "Java bidez programatzen ditugu eta egiten duguna da datu-base bat sortu non atea irekitzeko baimena dutenak egongo diren. Zailtasuna dago Matz-Errekako plaka eta telefonia bateragarri bihurtzeko, eta softwarea egiteko". Hori lortuta, erraza da erabilera: erabiltzaileak deia egin (doako dei geldua), atearen plakak deia egin duen zenbakia baimenduta ote dagoen baieztatu eta atea zabaldu egiten da.

**MANTENTZE-LANA ERRAZAGOA**

Sistema berriak mantentze-lana ziurtatzen du. Matz-Errekako Peio Andrinuak zera dio: "Ate-instalatzaileen egoitzak urrun egoten dira eta ez da erraza mantentze-lanak egitea. Produktu honekin lortzen dugu mantentze-ak urrunetik egitea, telefono bidez. Ate baten parametroak aldatu edo ate baten diagnostikoa egin…". Baikor azaltzen da Andrinua: "Telefono bidezko erabilera hau ez dago saturatuta. Eta produktuak ez dira egiten laborategian edukitzeko, kalera ateratzeko egiten dira".

**KOMUNIKABIDEAK** > SENTENTZIA

# Cope zigortu dute Batasuna eta Eroski lotzearren

Irrati kateak eta Cristina Lopez Schlichting kazetariak Eroskiri 12.000 euro ordaindu beharko dizkiote

**E.M.** > BERGARA

Cope irrati kateak eta Cristina Lopez Schlichting kazetariak (*La tarde* irratsaioko aurkezleak) 12.000 euro ordaindu beharko dizkiote Eroskiri, kalte moralengatik. Aipatutako kazetariak zera leporatu zion Eroskiri 2005eko maiatzean: Eroskik Batasuna babesten zuela, Arnaldo Otegi kartzela ateratzeko fidantza Euskadiko Kutxako abal batekin ordaindu zelako. Durangoko Epaitegiak emandako sententziaren arabera, Eroskiren ohorea kaltetua izan zen. Mondragon taldeko enpresei boikot egiteko deia egin eta "odolarekin eskuak zikindu ez ditzazuen, ezagunenak identifikatu ditugu" esan zuen kazetariak, Orbea, Fagor edo Irizar aipatu aurretik.

**ENPRESA** > CEGASA

# Cegasa: 217 langilerendako lan erregulazioa

Jaurlaritzak atzera bota zuen lanpostu horien desagertzea planteatzen zuen lehengo txostena

**E.M.** > BERGARA

Gasteizko lantegiko 217 laguni eragingo dien lan erregulazio txostena aurkeztu du Cegasak. Hasiera baten, Jaurlaritzak atzera bota zuen lanpostu horien desagertzea planteatzen zuen lehenbiziko txostena. Zuzendaritzaren arabera, diruzaintza arazoak arindu nahi dituzte lan erregulazio txostenarekin, gaur egun zailtasunak dituztelako Gasteizen pilak egiteko. Era berean, langileekin akordioa lortzeko itxaropena azaldu dute. Enpresako iturrien arabera, 54 urtetik gorakoei zuzendutako aurre-erretiroen plana eta borondatezko bajena ez zuten langileek martitzenean onartu, zuzendaritzak jarritako baldintzak ez zituztelako begi onez ikusten.

## Manifestazio jendetsua Orniko langileen alde

Orni eta Dakigu enpresetako langileek manifestazioa egin zuten eguenean, Bergaran zuzendaritzak enpresa ixteko hartu duen erabakia dela-eta. Langileek salatu dute zuzendaritzatik ez dutela egin ahaleginik enpresaren jarraipena ahalbideratzeko, eta zehaztu dute langile bakoitzari lau nomina zor dizkietela. Langileek uste dute enpresak aurrera jarraitzeko aukerak daudela, baina uste dute jabeek momentuko egoeraz baliatu nahi dutela enpresa ixteko. Mobilizazioekin jarraitzeko gertu daude langileak.




IKER BARANDIARAN

> ARRASATE

### Lan erregulazio txostena aurkeztu du Polmetasak

Polmetasa lantegian astebete daramate enplegu erregulazio espediente egoeran; sindikatu eta enpresako zuzendaritzak adostutakoa izan da. Ibilgailuendako motelgailuak egiten dituzte eta eskarietan %50eko jaitsiera egon dela-eta behin behineko langileen lanpostuak zalantzan zeuden; hala espedientearekin lanpostu guztiei eutsiko diete. Uztail amaiera bitartean, 30 lanegunetan ez dute lanik egingo langileek, eta osagarriekin, %80 kobratuko dute. 230 langile inguru daude lantegian, eta denei eragingo die erregulazioak.

auzorik auzo

**BASALDE** > Antzuolako Basalde auzoa Deskargapean geratzen da, Irimo mendiaren magalean. Oñati eta Legazpirekin egiten du muga alde batean eta Irimo auzoarekin beste aldean, Angel Jauregi auzo-alkateak dioenez.



Angel Jauregi, San Blas ermitaren aurrealdean. ARANTZAZU EZKIBEL

**Angel Jauregi** > Auzo-alkatea

# "Oinez ibiltzeko, auzoa herriarekin lotuko duen bidezidorra eskatzen dugu"

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

**Bi urte bete ditu Olazabal baserriko Angel Jauregik auzo-alkate lanetan. Eskaera askorik ez duen auzoa dela esan digu Jauregik; eta zerbait puntuala dagoenean bakarrik elkartzen direla auzotarrak.**

**Zein da auzoaren gaur egungo egoera?**

Auzoan 15 baserri daude: 13 baserritan jendea bizi da eta beste bi hutsik daude; hau da, bigarren bizileku moduan dute baserria. 45 lagun inguru bizi gara auzoan. Gehienok kalean egiten dugu lan; baserritik bizi den gutxi dago gaur egun.

**Arazorik baduzue ala badu auzoak eskaera nagusirik?**

Eskakizun handirik ez daukagu; baina, eskatzen hasita, hemendik kalerako bidezidorra egitea eskatuko genuke. Gehienok autoan ibiltzen gara, baina oinez ibiltzeko oso gaizki dago. Ez dago biderik eta hemengo zirkulazioa oso handia denez, arriskutsua da.

Bidegorria egin behar dutenez, aprobetxa dezatela auzoa herriarekin lotzeko. Kalera oinez joateko espaloirik ere ez dago.

**Saneamendua eginda dago?**

Baserri bakoitzak bere putzu septikoa dauka; orain dela urte askotxo egin ziren eta ordutik uste dut behin bakarrik garbitu direla. Hortaz, uste dut garbitu beharra dutela. Agian, nork bere baserrian garbitu izan ditu. Bestalde, esan behar da Udalak badaukala proiektu bat ura eta saneamendua egiteko.

**Baserrietarako bideak asfaltatuta daude?**

Ez. Gurean, adibidez, ez dago asfaltatuta. Auzoa oso sakona da, baserri gehienak hemen bertan daude, ermita inguruan; hauek bai, hauek asfaltatuta daude. Bestalde, beste bi baserri errepidearen kontra daude eta horiek ere bidea asfaltatuta dutela esan daiteke.

**Baserrietarako sarrerekin arazoak dituzue.**

Bai, beste arazo bat sarrerekin daukagu. Uste dut ez dela Udalaren ardura izango, Diputazioarena izango da; baina errepide nagusitik baserrietarako sarrerak oso gaizki daude. Argi ibili beharra dago; gainera, autoak abiadura handian ibiltzen dira.

Kamioak ere asko ibiltzen dira. Zirkulazio handia dago; uste dut goiko sarea egiten dutenean, autobidea, hemengo zirkulazioa zerbait jaitsiko dela.

**AHTrekin kezkatuta zaudete: hemendik pasako dela eta oraindik ez duzuela nahiko informaziorik.**

Oraindik isilik dago dena, baina laster hasiko dira. Lanekin hasten badira, auzoa kaosa izango da bost urtean gutxienez. Auzoa zeharo aldatuko da. Ez digute informaziorik ematen.

**Basalde auzoan San Blas jaiak ospatzen dituzue.**

Otsailaren 3an ospatzen da bertako jaia; eta herriko okindegietan egindako opil bereziak ekartzen dituzte bedeinkatzera. Ermita orain dela 14 urte berritu zuten; egurrezkoa da guztia, oso polita.

**Goiko aldean garai bateko errota dago.**

Errota han goian dago, baina aspalditik ez du funtzionatzen. Ur-jauzia ere han zegoen, baina urteak dira saltoak ez duela funtzionatzen; lehen, ura handik hartzen genuen eta, hain zuzen, Basalde auzorako beste elektrizitate jasotzen genuen.

**"AHTko lanekin hasten badira, auzoa kaosa izango da, gutxienez, bost urtean"**

**"Lehen, auzoan ur-jauzi bat zegoen eta auzorako beste elektrizitate ematen zuen"**

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Otsaileko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 40 euro

SARRERAK
Bruesa- Kalise Gran Canaria partidurako sarrerak.
BIDALI AG BRUESA 5533 zkra

KAMISETA+POLTSA
skunkfunk
Skunkfunk kamiseta bat.
BIDALI AG KAMISETA 5533 zkra.


DVD
DANBAKA
Danbakako DVD bat.
BIDALI AG DANBAKA 5533 zkra


PENT-DRIVE
Goienako Pent-Drive bat.
BIDALI AG PENDRIVE 5533 zkra.


SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

URDAIBAIKO URRESTI LANDETXEAN GAU BAT

www.toprural.com/urresti
Benetako landetxea Urdaibaien!
Taldeentzat %10-eko deskontua

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

Oñatiko Txantxiku Ikastolan sexualitateari buruzko programa landu dute 13-18 urte bitarteko nerabeek. Kontzeptuak, harremanak, sentimenduak, arriskuak... landu dituzte. Honen ostean, hezitzaileek gurasoekin egin dute bilera, eta 'Zein iritzi dute gure nerabeek euren heziketa afektibo sexualaz?' ardatz hartuta, hitzaldia egin zuen Eider Goiburu Psikologoak.

**Eider Goiburu** > Psikologoa eta sexu hezitzailea

# "Gustatzen zaien pertsonari nola gerturatu jakin gura izaten dute"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

**Eider Goiburu oriotarra psikologoa da eta sexu hezitzailea. Gainera, berdintasun teknikaria da Goiburu. Donostiako Lahia-Nahia sexologia elkarteko kidea da. Oñatin izan da, nerabeen sexu heziketaz berba egiten.**

**Ze landu zenuten gurasoei zuzendutako hitzaldian?**

Gurasoei, besteak beste, euren seme-alabak sexualitateko ze etapa bizi duten kontatzea zen hitzaldiaren helburua. Bestalde, guk nerabeekin egin dugun programa azaldu genien gurasoei; ze landu dugun eta ze teoriatan oinarrituta. Baita nerabeek ze jarrera izan duten eta ze erreakzio izan duten ere.

**Ze iritzi dute nerabeek euren heziketa afektibo sexualaz?**

Hasiera baten askok esaten dute dena dakitela. Pasatzen dena da sakontzen hasten garenean konturatzen direla hainbat gai daudela ez dituztenak kontrolatzen. Ez bakarrik ez dutela kontrolatzen ezagutza aldetik; baita ere gai konkretu batzuez berba egitea ez zaiela batere samurra egiten. Azken finean, nerabeek euren artean berba egiten dutenean gai konkretu gutxi batzuetaz egiten dute berba; eta egoera jakinetan gainera. Adibidez, koitoaz berba egiten dute, baina ez euren harremanetaz, baizik eta orokorrean.

Bestalde, sentimenduen gainean berba egiten hasten garenean, baliabide falta dutela sumatzen dugu.

**Ze gai lantzen dituzue nerabeekin eta nola?**

Adinaren arabera gai ezberdinak lantzen ditugu. Programa 13 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago; hortaz, aukeratutako gaiak adinaren araberakoak izan behar dira.

Hirugarren DBHkoekin lantzen da sexualitatearen kontzeptua. Sexualitatearen kontzeptua entzuten dugunean koitoa etortzen zaigu burura, baina sexualitatea hori baino gehiago da. Bizitzen ari diren hainbat aldaketa ere lantzen ditugu; eta baita dauden sexu jokabideak ere.

Bestalde, bikote harremanak, sentimenduak, arriskuak... lantzen ditugu; horrez gain, aurten, gure programan emakumearen aurkako bortizkeria sartu dugu. Gaurkotasunezko programa izaten da hori.




Eider Goiburu psikologoa Oñatiko Txantxiku Ikastolako hitzaldian. ARANTZAZU EZKIBEL

GAIAK

**"Sexualitateaz berbetan koitoa etortzen zaigu burura, baina hori, baino gehiago da"**

GURASOAK

**"Orokorrean nerabeek ez dute euren gurasoekin berba egin gura izaten"**

INTERNET

**"Gurasoek ez dute kontrolatzen nerabeek jasotzen duten informazioa"**

**Zeintzuk dira nerabeek sexualitatearen inguruan izaten dituzten kezka nagusiak?**

Arriskuak kezkagarriak dira: haurdunaldiak, gaixotasunak, IHESA... Bestalde, gustatzen zaigun pertsonari nola gerturatu jakin gura izaten dute. Normalean, ez dute jakiten nola gerturatu. Askotan, gerturatze hori nola egin jakin gura izaten dute.

**Nolako jarrera izaten dute nerabeek?**

Euren jarrera oso positiboa da. Guk erabiltzen dugun metodologia metodologia parte hartzailea da. Hau da, dinamika eta jolas ezberdinak egiten ditugu eurek parte hartzeko.

Bestalde, sexualitatea eurentzat oso gai interesgarria izaten da, eta dinamika eta jolas bidez planteatzen dugunez, oso jarrera positiboa izaten dute. Euren aldetik jasotzen ditugun balorazioak positiboak dira.

**Neskek edo mutilek dituzten kezkak ezberdinak dira?**

Euren jarrerak ezberdinak dira planteatzen ditugun gaien arabera. Esan behar da, gaur egun oraindik gizarte sexista batean bizi garela. Neskak askoz hobeto moldatzen gara sentimenduen gaietan. Badakigu zer gertatzen zaigun eta horri izena jartzen diogu. Gizon, gehienak, berriz, galduta ibiltzen dira sentimenduen kontuetan.

Plazerra, ostera, gizonen kontua dela uste dugu. Neskei gehiago kostatzen zaigu.

**Esan daiteke oraindik rolak oso definituta daudela?**

Bai. Gertatzen dena da orain denak politikoki zuzenak garela; hau da, esaten dugu denak berdinak garela, baina hitzezkoa da. Benetan aztertzen hasten garenean nola sentitzen garen bakoitza, ezberdintasunak irteten dira. Jokabidearen araberako etiketak jartzen dituzte.

**Nolako harremana dute nerabeek euren gurasoekin?**

Orokorrean nerabeek ez dute gurasoekin berba egin gura izaten gai hauetaz. Beraientzat gai oso intimoa da; eta nahiz eta gaur egun esan sexualitatea oso gai naturala dela, etxe gutxitan berba egiten da sexualitateaz.

Heltzen da garai bat gurasoek entzuten dutena: abortu asko daudela, Hiesaren transmisioa gehitzen dabilela eta beste hainbat kontu. Orduan, gai hauetaz berba egin gura izaten dute; baina orain arte ez baduzu berba egin, oso zaila da orain hastea. Gainera, nerabezaroa da etapa bat, gurasoekin asko ixten direnak.

**Gurasoekin izaten dituzuen bileratan, zer esaten dizuete?**

Gurasoak orokorrean oso galduta egoten dira. Ez dakite euren seme-alabek koito harremanak dituzten edo ez. Horregatik, ze momentu pasatzen dabiltzan eta euren jarrera zein den jakin gura izaten dute. Baita gaiaz berba egiteko zein baliabide dauden ere.

**Internetek garapen handia izan du. Badakite gurasoek non sartzen diren euren semealabak?**

Gaur egun informazioaren gizartean bizi gara; gurasoek ez dute kontrolatzen nerabeek jasotzen duten informazioa, baina nerabeek ere ez dakite ze eragin duen eurengan informazioak.


Bi lagunentzako afaria,
gau osoa aurrean
eta zu...
zure ekonomian
pentsatzen?
Helbidera ezazu nomina kutxan.
LASAIAGO BIZIKO ZARA.
. Ordainketak diru-sarreretara egokituko dizkizu.
. Irtenbideak aurkituko dizkizu.
. Finantza-abantaila esklusiboak lortuko dizkizu.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

**kale inkesta**

# Duela 20 urte hasi zen intsumisioaren aldeko borroka. Zer deritzozu lortutakoari?



**Gorka Granados**
Langilea
Bergara

Borroka baliagarria izan zen. Nik egin nuen soldadutza: erabaki egin behar zen bederatzi hilabete galdu edo beste arrisku batzuk hartu. Soldadutza zer zen ikusi eta gero, orain uste dut intsumiso egingo nintzatekeela.



**Igor Garcia**
Langilea
Bergara

Nik egin nuen soldadutza, eta esperientzia txarra izan zen. Ondo iruditzen zait intsumisioaren alde egindako borroka. Baina oraindik dena ez dago eginda. Borrokan jarraitu behar da militarrak desagertu arte.



**Rosa Irizar**
Langilea
Bergara

Borroka horri esker gai horiei buruzko kontzientzia handiagoa dago, eta soldadutza profesionala izatea ere lortu zen. Ondo iruditzen zait oraindik lanean jarraitzea, gastu militarra gutxitzeko eta armadak desagertzeko.



**Mariasun Barrena**
Langilea
Bergara

Ondo iruditzen zait egindako borroka. Hara joatea alferrik zen; zer ikasi behar zuten ba? Orain ere barne segurtasuna bermatzeko zerbait behar da, baina armadak beste herrialdeetara konkistan bidaltzea, ez.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

ESKORIATZA
**> Santa Ana auzoan zakur kakekin eta katuekin "nazkatuta"**

Irakurle batek Santa Ana auzoko egoerarekin "nazkatuta" idatzi du. Haren esanetan, alde batetik, zakur kakak daude. Azaltzen duenez, "zehazki Alcazar taberna dagoen kalean izkina baten bi ormetan zakur kaka erreskadak daude eta ez berriak". Gehitzen duenez: "hain higuingarria ez balitz, grazia eta guzti dauka irudiak". Horrekin lotuta, bigarren kexu bat ere badauka irakurleak eta da auzotarrak "kokoteraino daudela" katuekin.

BERGARA
**> Txaloak Aratusteetan Udalak izandako inplikazioari**

Irakurle batek txalotu gura du Bergarako herritarrek eta baita Udalak ere Aratusteak indartzeko egindako ahalegina. Egitarauaz, afariaz eta giroaz gain, "detailetxo bat" aitatzen du irakurleak: "Udaletxea ere apaindu izana". Orijinala iruditu zaio eta antza, estimatu egin du Udaletik eman gura izan dioten "ukitu berezi" hori, hain zuzen ere.

ARETXABALETA
**> "Faltan botatzen da giroa pizteko tabernarien bultzada"**

Irakurle gazte bat kexu da Aretxabaletako gau giroak izan duen makaltzeaz. Hark agertzen duenez, inguruko herrietan, "Arrasaten moduan, tabernariak beherapenak edo eskaintzak egiten dituzte jendea animatzeko" eta gurako luke Aretxabaletan ere horrelako ekimenen bat egitea.

**usteak uste**

**Julen Iriondo**

# Euskaraz eta bere kontra

Unescoren arabera galtzeko arriskuan dauden 2.500 hizkuntzatako bat da euskara. Indartzeko, adostu beharrekoak izango dira jarraitu beharreko politikak, euskarak toki bakoitzean duen egoeraren araberako neurriak; ez dagokit niri hartu beharreko erabakiak zeintzuk diren esatea, zeintzuk ez diren oso garbi dut, ordea. Pena eman zidan ikustea euskara ama hizkuntza duen PPren hautagai bat bere alderdiaren tesiak defendatzen: inor ez dela hizkuntzagatik diskriminatu behar, eta hizkuntza eskakizunik gabeko postuak bultzatuko dituztela administrazioan; eta euskararen onerako izango omen da, gainera. Eta bera beste edozein bezain euskaldun dela zioen, eta ez dut nik hori ukatuko: baina engainatu zaituzte orduan.

**zorroztailea**



**Larraitz Ugarte**

# Abortu eskubidean aldaketak?

"Fiskalak eskatu du Suelen Verideilinentzat, Nafarroako hiriburuan bizi den 25 urteko gaztearentzat, zortzi hilabeteko kartzela zigorra 'abortu delitoagatik'. Fiskalak argudiatu du emakumeak 'umekiaren denbora aurreko kanporatzea eragin zuen' sendagai bat hartu zuela (...)"

Gara > 2009-02-20




Ehiztarien aferen, horren ondoriozko Garzon epailearen antsietate krisien eta herritar sektore garrantzitsu baten legez kanporatzearen eta kriminalizazioaren gainean eraikitako hauteskunde ez-demokratikoen artean ia oharkabean pasatu den albiste bati atera nahi diot punta zutabe honen nire estreinaldian.

Iragan astean Madrilgo parlamentuko batzorde batek 1985eko abortuaren legearen erreformari ekitea ontzat eman du. Egitasmo honek egungo zioen araberako abortu eskubide mugatua (bortxaketa, amaren arazo psikologiko edo fisiko larria eta umekia onik ez etortzea) epekako abortu eskubide zabalagoaz aldatzea du helburu. Honek edozein emakumek epe barruan inongo arrazoirik eman beharrik gabe abortatu ahal izateko duen eskubidea bermatuko luke. Ikusi beharko da egitasmoa zertan zehaztuko den eta etorkizunean Hego Euskal Herriko emakumeoi (Ipar Euskal Herrikoek badute dagoeneko epekako abortu eskubidea arautua-eta) zer nolako erraztasunak emango dizkigun gure gorputzarekin eta bizitzarekin egin nahi duguna askatasunez erabakitzeko.

**"Madrilen 1985eko abortuaren legea erreformatzea ontzat eman dute"**

**"Errealitatean abortatzea ez da inola ere erraza emakumeondako"**

Eta ikusi beharko, diot, errealitatean abortatzea ez delako inola ere erreza. Abortu gehienak osasun publikotik kanpo egiten dira, klinika pribatuetan eta ordaindu-ta, medikuek jazarpen judiziala jasan behar izan dutelako abortuak legearen barruan praktikatu arren; eta emakumeok elizaren eta Opusaren presioak eta hiltzaile bezalako irainak sufritu behar ditugu. Badira urrutirago joan diren kasuak. Ostegunean bertan Iruñean abortatzeagatik emakume etorkin bat epaitu eta zortzi hilabeteko kartzela zigorraz eta kanporaketaz zigortu nahian zebiltzan, emakumea ez agertzeagatik epaiketa eten eta beste baterako geratu bada ere. Nafarroako erakundeak, epaitegiak eta Opusa abortu eskubidearen aurkako gurutzadan daude, emakumeok gure bizitzak euren nahietara eta menpe bizi ditzagun.

Alda daitezela legeak bai, baina baita praktikak ere, behingoz eta betirako emakumeon abortu libre eta doakorako eskubidea berma dadin.`

ASTELEHENEKO **Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Jon Berezibar, Julen Iriondo, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**> ARRASATE**
Uribe auzoko kutsadura kezkari jarraipena egingo diote Udalak eta Jaurlaritzak **> 16**



**> BERGARA**
Egoitza urtebetez kudeatzeko gertu daude San Joxepe elkarteko bazkideak **> 17**



**> ARETXABALETA**
Mitarte kalea berritzeko hornidura eta saneamendu lanak apirilean hasiko dituzte **> 19**



**KIROL ZERBITZUAK** Antza kiroldegirik ez da behar kirol zerbitzu txukun batzuk lortzeko, karroza bat nahikoa izan zaie hauei bigarren saria eskuratzeko. JOSETXO ARANTZABAL

**ARETXABALETA**

# Burutzar baten erditzea eta kirol zerbitzu ibiltaria, txapeldun

Harridura eta kritika, horiek aurten irabazle. 'Tamaina handiko burutazioa' izan da epaimahaiak aukeratu duena

**JON BEREZIBAR >** ARETXABALETA

Umore eta karrozetan txapeldun izan ditugu aretxabaletarrak Aratusteetan. Baina, guztietatik epaimahaiak erditze bat irudikatzen zuen koadrilarena aukeratu du irabazle moduan. Guztiak harritu eta baten bat eskandalizatu duen burutazioa. Hain zuzen, esan ohi ume jaio berriak guztiak direla politak. Ez dakiguna da amak bere sabeletik irtendako burutzarra ikusterakoan zer pentsatuko ote zuen.

Umorea eta probokazioa haiena eta umorea eta kritika bigarren sarituena. Uneotan Aretxabaletan ez daukate kiroldegirik eta horren aurrean karroza hartu eta kirol zerbitzu konpletoa eta ibiltaria da planteatu dutena Zelabaixotakoek.

Aspaldiko Aratuste zale porrokatuak ditugu aretxabaletarrak eta igartzen da inork baino hobeto dakitela Inauterietan barre egin, disfrutatu eta batez ere, karroza apartak egiten. Aipagarri eta sarituen artean On Kixote, Sancho eta errota ibiltariak, Tio Pepe eta haren botila ere paseoan ibili ziren Duranatik gora eta behera eta eurekin batera Abbako laukotea ibili zen disco hit ezagunekin guztiak dantzan jartzen. Hamasei urtetik beherakoetan neska-saguak izan ziren atzoko irabazleak eta bigarren postuan herri kiroletan zebiltzan morroskoak.



UDAkoen entrenamenduek suhiltzaile izateko balio ote diete? JOSETXO ARANTZABAL


Japoniatik gurera ondo pasatzera. J. A.


Etxeko lanak, Aratusteetan bakarrik. J. A.

ARETXABALETA

# Mozorro eta karroza Durana kalean, lehia eta bizipoza

## Parte hartzaileez gain, begira zeuden herritar asko ere Aratusteetarako apropos jantzi ziren

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARETXABALETA
Aretxabaleta. Domeka eguerdian Durana kalea jendez beteta, Aratusteetako desfilea dela-eta.

Mozorro eta karroza eta jendearen poza. Suhiltzaileak eta euren kamioia eta noski ura, ingurukoak bustitzeko gogoz zebilen UDA. Batzuk bustitakoa besteek lehortzeko gizonezkoak gertu, lan hori egiteko berdintasuna tarteko. Emakumeek jantzi zituzten prakak soinean eta gizonak etxeko lanetarako planean.

Kalearen erdian, bazterrean edo erakusleihoan bestela, Durana kaleko kristala babes zutela. Dantzan neska gazteak eta kamioia eskenatoki bihurtuta kantuan besteak. Abba kantari eta garai hartako jantziak soinean zituztenak mugimendua emanaz euren gorputzari.

Gorputza mugitzeko kiroldegira. Aretxabaletan denak omen daude berriari begira, baina bitartean Zelabaixotakoenak sortu zuen ikusmira.

### GIZONAK ETXEKO LANETAN

Berdintasuna eskatzen zuten batzuek eta dirua besteek. Desfilean ez, baina eskekoek ohi duten moduan kale ertzean eskatuz mesedez. Kartoi, ardo, akordeoi eta eskerako txartela, sosen bat edo beste seguru jaso zutela.

Eurengandik gertu sahararren kanpamendua. Zapia buruan, desertuko doinuak lagun Sahara gertuan.

### KALEAN IKUSMINA

Batzuek desfilatzen eta besteak ikusten, baina harritu edo irribarre bat atera gabe inor ez zuten uzten. Aratusteek Aretxabaletan badute sona eta mozorro pila bat ikusi zitekeen originala bata, barregarria bestea, eskasa zein ona. Mozorroekin gozatzea zen kontua eta aretxabaletarrek horretarako badute gogoa eta talentua.


Barbien pare, ikusleei burbuila keinuak eginez, autotik jaitsi gabe. JOSETXO ARANTZABAL


Harria jasotzen Perurenak baditu aurkariak, eta jasotzen dituzte sariak. J. A.


Etxeko untxi txikiak azenarioa jaten du? JOSETXO ARANTZABAL


Duff edanez gero, ero. J. A.



Balleterako baino gehiago, bazter guztiak dantzan ipintzeko agian hobeto leudeke. JOSETXO ARANTZABAL



*Arristi* kapitaina. JOSETXO ARANTZABAL



Harriketarren karroza irabazle. J. A.



On aurpegiarekin, borrokarako gertu. J. A.



Ipotxek, Edurne Zuri eramateko nahikoa lan. JOSETXO ARANTZABAL



Adin guztietako jendea mozorrotuta bazkarian Uarkapen. JOSETXO ARANTZABAL

**ARRASATE**

# Adin guztietako jendeak mozorrotuta jaian parte hartu zuten, eta herritarrek Aratusteekin gozatu

Desfile jendetsuak aho zabalik utzi zituen begira zeudenak, eta jairako gertu ipini parte hartzaileak

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE

Arrasate, Aratusteetan jende mordoak hartu du parte. Antolatzaileak desfilearekin harrituta, hainbeste jende eta denak mozorrotuta. Umeak, gazteak, eta adinean aurreratuak, jairako apropos gertatuak.

Baina, desfilearen aurretik pregoia. Inkisidoreek orduan jo zuten goia, baina parrandarako gogoz zirenek ez zuten kontuan hartu euren arrazoia.

Desfilean mila mozorro eta mila kolore, denak dotore. Dotoreenak edo onenak harriketarren karroza eta mamu harrapatzaileak. Erakutsi zuten Aratusteek Arrasaten ere badituztela zaleak.

**BAZKARIAN 725 LAGUN**

Herritarrek ikusi zituzten bai, eta oraindik bazen nahikoa jai. Uarkape, jendez bete. Bazkarian adin guztietako arrasatearrak umedun gurasoak, gazteen koadrilak etabarrak.

Aratuste, hainbesteko indarra hartuko zutenik zeinek uste. Horrela izango da urtez urte? Aurtengo irabazleek hurrengoak gertatzen ahalegina egingo dute.

**ARAMAIO**

# Musika, dantza eta kolore, Aramaion ere mozorrotuta dotore

Jendea mozorro desfilean ez ezik ondorengo kalejiran parte hartzera ere animatu zen

**I.A.** > ARAMAIO

Frontoiko herri bazkarian 60 lagun, euren janzkera bereziek Aratusteak zirela utzi zuten ezagun. Tripa ondo bete ostean, mozorroen kalejira eta saria irabazteraino jira eta buelta ibili zirenak txotxongiloak. Beste batzuek ere egin zuten dantza eta txokolate janaren ondoren plaza betean hankapaloekin eta kaleko orkestrarekin izan zen Aratusteek berezkoa duten txantxa.

Aramaion mozorroak soinean urteroko ohiturari jarraituz denak ibili ziren giro onean.



Aramaion ere badira Travoltak eta Olivia Newton John-ak, dantzan trebeak. J.A.



Txotxongiloen pare mugitzen. J.A.


Marinelak lehorrean egubakoitzean. I.A.


Afaritan 250 lagun izan ziren, denak mozorrotuta. J. ARANTZABAL


Pailazoak umeen gozagarri. J. ARANTZABAL


Ijitoak, zartagin eta guzti. I. BARANDIARAN


Mozorrotutako udaletxearen aurrean atera zuten argazkia Euskal Aratusteetako jantziekin. ENEKO AZKARATE


*Rafting*-ean adinako arriskua izango zen Bergaran zapatu gauean. I. AGIRREAZALDEGI

**BERGARA**

# Askotariko mozorroak ikusteko aukera desfile koloretsuetan

Aratuste jaiak indartzeko afaria antolatu dute eta arrakasta izan du gainera; udaletxeari ere mozorroa jantzi diote

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Aratuste mozorroz jantzi da Bergara, bai behintzat herriaren adierazgarri den udaletxea. Maskarak eta koloretako zapiak ditu soinean egunotan.

Udaletxea ez ezik, Bergararrak ere mozorrotu dira Aratusteetan. Egubakoitzean eskoletako umeak ibili ziren itsas giroko mozorroekin batzuek, euskal Inauterietakoekin besteak, ijito jantzita zenbait... Umeak zapatuan ere mozorrotu egin ziren Pirritx eta Porrotxen ikuskizunera joateko.

**AFARI JENDETSUA**

Umeak egunez eta iluntzerako nagusiagoak kalera, hauek ere mozorrotuta. Askotariko mozorroak ikusi ahal izan ziren desfilean, baina Bedelkarrekoen ustez *Disney*-ko pertsonaien jantziak zituen taldea izan zen onena.

Kalean ibili ziren mozorrotuta txarangarekin eta afaritara gero; seminarioko patioan jarraitu zuen batzuendako jaiak. Jan eta edan ostean kantua, karaokea eta dantzaldia gero. Luze jarraitu zuen jaiak kalean, oherako mozorroa jantzi bitartean.


Plazan dantza saioa egin ostean, bazkaria izan zuten dantzariek. OINARIN

**ANTZUOLA**

# Mairuaren alardea eta dantzak, Aratusteetako aitzaki

*Hartza*, *tximinoa* eta *domadorea* dantzariekin batera ibiltzea da Antzuolako ohitura

**I.A.** > ANTZUOLA

Egubakoitzetik Aratuste jaiak ospatzen jardun dute Antzuolan. Gaztetxekoek eman zuten sorpresa gauean herrian Mairuaren Alardearen parodia egin baitzuten mozorrotuta. Mairuak libre eta kapitaina preso.

**OINARINEN IKUSKIZUNA**

Domekan dantzek hartu zuten lekua. Oinarineko dantzariek, herritarrekin alaitu zituzten kaleak, eta plazan ikuskizun polita eskaini zuten; sorgin mozorrotuta batzuek, beltzez eta koloretako zapiekin besteek...


Mutilek sorgin-dantza egin zuten. OINARIN

ESKORIATZA

# Izarrak irabazle eta giro bikaina izar, herri bazkarian

Espazio-ontzian iritsi ziren mozorro lehiaketako irabazleak. Zapatuan ospatu zuten eskoriatzarrek Aratuste eguna giro ezin hobean


Irribarreak bazkalorduan. J. BEREZIBAR


Kristal garbitzaileak. J.A.

**JON BEREZIBAR** > ESKORIATZA
Izarren artean aurkitu behar ditugu aurtengo mozorro lehiaketako irabazleak ze, handik, galaxia urrunen batetik jaitsi ziren aurtengo txapeldunak espazio-ontzi eta guzti. Luis Ezeiza eskolako guraso elkartekoendako izan da 250 euroko saria.

**HERRI BAZKARIA FRONTOIAN**
Espazio-ontziak, gurdiak eta auntzak Luis Ezeizako jolaslekuan aparkatuta, hitzordu nagusia pilotalekuan egindako herri bazkaria izan zen, jendetsua eta alaia. Hotzik ez pasatzeko estufa eta guzti izan zuten eskoriatzarrek. Osakidetzako erizain eta anbulantziak ere ibili ziren herritik, baina ezin jakin larrialdietarako prest ote zetozen.


Aurtengo mozorro lehiaketako irabazleak. JOSETXO ARANTZABAL

OÑATI

# Oinatzekoen eta herritarren eskutik Inauterietako dantzak


Suaren inguruan Lantzeko Inauterietako pertsonaiak izan ziren. JOSETXO ARANTZABAL

Zapatuan Lantzeko dantzak, muxikoak eta polkak egin zituzten herritarrekin eta domekan dantza taldekoek Luzaideko dantzak

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > OÑATI
Oñati dantzari ibili da Aratuste giroan. Zapatuan Oinatz taldekoek beste zenbait oñatiar, 140 guztira, lagun hartuta dantza saioa eskaini zuten suaren inguruan plazan. Lantzeko inauterietako dantzak, muxikoak eta polkak egin zituzten eta jende dezente gerturatu zen ikustera. Domeka arratsaldean, dantzarako gogoz jarritzen zutela erakutsiz, Luzaideko dantzak egin zituzten, Oinatzeko dantzariek bakarrik.

**TXIKIAK EGUBAKOITZEAN**
Mozorrotzea gustukoen dutenak umeak dira eta haiek ere izan zuten aukera. Eskoletako umeek dantzariei aurrea hartu zieten egubakoitzean aterata.


Herritarrek Oinatzeko lagunekin batera egin zuten dantza plazan. JOSETXO ARANTZABAL


JOSETXO ARANTZABAL

LEINTZ GATZAGA

## Kukurruku ordu txikiak arte

Jakin ez dakigu zein lapikotan amaitu zuten, baina Leintz Gatzagan oiloak eta oilarrak nagusitu ziren Garro jauregian zapatuan egindako afarian. Afalostean Kuluxka taldea arduratu zen gaua girotzen jarraitzeaz. Txikienek ondo pasatzeko aukera aurretik, arratsaldean izan zuten, jinkanarekin eta txokolate janarekin.

ELGETA

# Mundu zabaleko janzkerak eta zaporeak barikuan

**JON BEREZIBAR** > ELGETA
Eskolako neska-mutikoak hasi ziren eta nagusienek hartu zieten gaueko afarian lekukoa. Kosmopolitak ditugu Elgetako txikitxoak eta munduko hamaika txokotako janzkerekin ikusi genituen barikuan: Mexiko, Errusia, Brasil, Ukraina... Nagusiek gurago izan zuten euskal tradizioei eutsi eta mahaiaren bueltan elkartu, baina marokoar menu batekin, eta gero dantzaldira joan.


Jaliscotik Elgetara, mariachi koadrila gaztea plazan. TXOMIN MADINA


Marokoar menua dastatu zuten helduek gauean. JOSETXO ARANTZABAL

**URIBE AUZOA** > AUZOTARREN KEXAK

# Kutsaduraren kezkari jarraipena egingo diote Udalak eta Jaurlaritzak

Airearen kalitateaz, haurren jolasparkeaz eta aparkaleku faltaz dira kexu. Gaiok aztertu dituzte dagoeneko Tokiko Gobernu Batzarrean


Auzotarrak kezkatuta daude inguruko jarduera industrialen emisioak direla-eta. JON BEREZIBAR

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Auzotarren kexak jasota, dagoeneko Udalak aztertu ditu gaiak joan den asteleheneko Tokiko Gobernu Batzarrean gaiak. Airearen kutsadura, haurren jolasparkea eta aparkaleku falta dira bizilagunen ardurak; eta dagoeneko lanean dago Udala.

**KUTSADURAREKIN KEZKATUTA**

Airearen kalitatearekiko Uribarrikoek duten ardura ez da berria, "lehenagotik datorren kontua" dela diote Udaletik. Zehazki, abenduan aurkeztu zioten auzotarrek Udalari atzera ere hautsaren gaineko kexua. Salatzen dituztenak dira Fagor Ederlan lantegitik datozen emisioak. Udala jakinaren gainean dago eta aztertu egingo dute gaia. Rafa Ugarte Ingurumen teknikaria orain bi aste egon zen auzotarrekin. Ugartek azaltzen duenez, Jaurlaritza arduratuko da gaiaz baina lehenik eta behin adostu dute udal ordezkariekin batzartuko direla. Oraindik bilerarik egin ez dutela dio teknikariak, hala ere. Udaletik diotenez, litekeena da airearen kalitatea neurtzeko kabina bat ipintzea auzoan.

**JOLASPARKEA "BIDERATUTA"**

Jolasparkearen egoerari buruzko kexaren kasuan, dagoeneko hasi da Udala lanean. Astelehenean bertan erabaki zuten behinbehinean jolasparkearen obrak esleitzea. Patxi Arburuak, Zerbitzuetako zinegotziak, dio "proiektua aurrerabidean dela eta iaztik dabiltzala gaiari jarraipena egiten"; iaz egin zuten, hain zuzen ere, akordioa.

Hirugarren ardura bat ere azaldu dute Uribetik, aparkatzeko lekuari dagokiona. Auzokoek agertu dutenez, lanen ondorioz aparkalekuak murriztu dira eta zailtasunak ei dauzkate. Tokiko Gobernu Batzarrean ere landu zen astelehenean gaia eta Arburuak azaltzen duenez, Udaltzaingoa izan da bertan egoera aztertzen eta haiek "ez zuten ezer berezirik ikusi".

> UDAL EUSKALTEGIA

### Taldea osatzeko prest daudenekin euskalki eta hitano ikastaroak antolatzeko aukerak badirau

Urte hasierako deiari helduta, hasi dira dagoeneko udal euskaltegian etorkinen, emakumeen eta gurasoen taldeekin. Horiek osatuta eta martxan daude dagoeneko, baina Emakume Txokoko zein gurasoen taldeetan oraindik jendea hartzeko moduan daude. Horiekin batera, hitano eta euskalki ikastaroak antolatzeko deia egin zuten, baina ez da talderik sortu. Interesa izanez gero, zortzi ikasleko talde batekin hasiko lirateke eskolak.

> TOKIKO GOBERNU BATZARRA

### Gazteluondo eta Arrasate pasealekuko bidea eta Epeleko bidegorria aztertuko dituzte gaur

Hirigintza eta Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako batzordeak elkartuko dira gaur. Obrei dagokienez, bizikleta eta oinezkoendako bidea – Elorregitik Epelera artekoa – egiteko proiektua onartzeko tramiteei hasiera emango diete. Beste erabakien artean, behin betiko onartuko dute Gazteluondo eta Arrasate pasealekua lotuko dituen bidea egiteko proiektua.

IAMAI ANTZOKIA
ARRASATE
Ostiralean 00:00etatik aurrera
otsailak 27 Carlitos. Umorezko saio musikala
matxoak 6 Oswaldo Digon. Galiziar umorea
matxoak 13 Dany Boy. Bakarrizketak
matxoak 20 Sebas "El Rayo". Umorezko kantua
matxoak 27 Ramón Guama. Bakarrizketak
apirilak 2 Martin Luna. Umorista






**PRESOAK** > SEI URTEKO ESPETXE ZIGORRA BETETA, ASKE DA

# Ertzaintzak galarazitako harrera plazan egin zioten herritarrek Amaia Arrietari

Arrasaten da dagoeneko preso ohia eta zapatuan harrera egin zioten, ertzainek ekitaldia eragotzi eta ostean kargatu arren


Ezkerretik eskumara, Joxepa Arregi, Amaia Arrieta eta Maria Murgoitio. J.A.

**J.B.** > ARRASATE

Arrasaten da sei urteko kartzela zigorra bete eta gero Amaia Arrieta presoa. Zapatu iluntzean hari harrera egiten saiatu zen herritar talde handia, baina Ertzaintzak galarazi egin zuen. Kargatu eta zenbait tentsio une gertatu eta gero, hustu egin zuten Seber Altube plaza. Harrera, azkenean, Herriko Plazan egin zioten Ertzaintzaren presentziarekin.

**KARGA ETA TENTSIOA**

Ekitaldi ordurako (19:00) jendez bete zen Seber Altube plaza preso ohiari harrera egiteko, eta uneoro entzun ziren hari ongi etorria egiteko oihuak; Arrieta plazan zegoen ordurako. Tentsio uneak minutuak pasatu ahala areagotu eta pilota bariko tiroekin saiatu ziren ertzainak plaza husten. Bertaratutakoek eutsi eta aurrez aurrekoak egon ziren bertan zeudenen eta ertzainen artean. Ordu eta laurdena pasatakoan plaza husteko agindua eman zuten agenteek eta oihu eta txistuen artean hustu zen Seber Altube plaza. Ertzainak orduan hedatu ziren eta herritar batzuen atzetik joan ziren segika. Minutu batzuk geroago herriko plazan herritarrak elkartu, eta ertzainen presentziarekin aurrera egin zuen harrera ekitaldiak: hala, Amaia Arrieta bera plazako agertokira igo zen.

**BI KARTZELALDI**

2007tik egon da Arrieta espetxean – Palentzian– , eta aurretik beste 4 urte bete zituen Jarrai-Haika-Segi auziagatik Entzutegi Nazionalaren aginduz.

ERRETIRATUAK > SAN JOXEPE ELKARTEA

# San Joxepe elkarteko bazkideak prest daude egoitza urtebetez kudeatzeko

Halaxe erabaki dute asteon, batzar orokorrean. Bestalde, eguneko zentroa lau urtez egongo da Boni Laskurainen, Mizpirualde berria egin arte



Begoña Garitano, Agurne Barruso, Roberto Martinez eta Carlos Arrondo eguazteneko batzarrean. MONIKA BELASTEGI

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

San Joxepe elkarteak urteko ohiko batzarra egin zuen eguaztenean. Aretoa bete zen, izan ere, azken hilabeteetan zeresan eta jakin-min handia sortu duen gaietako bat eztabaidatzekoak ziren: elkartearen egoitzaren egoera berria, Aldundiak egoitza Udalari laga dio-eta. Eta horrekin batera, eguneko zentroa handitzeak ekarriko dien metro galera, egoitza bera partekatzen dute-eta.

Bestetik, halako batzarretan ohikoa den bezala, 2008ko memoria irakurri eta aurtengo asmoen berri ere eman zuten, besteak beste. Zuzendaritza batzordeko kideez eta bazkideez –160 batgain, batzarrean izan ziren Agurne Barruso alkatea eta Roberto Martinez Ongizateko zinegotzia. Hain justu, horiek eman zituzten lagapenaren gaineko azalpenak.

### LAGAPENAREN NONDIK NORAKOAK

Gaur egungo egoerara iristeko aurrekarien berri eman zien Martinezek bertaratutakoei: "Diputaziotik jakinarazi ziguten zerbitzu sozialen legearen arabera, Udalera pasatuko zela egoitzaren kudeaketa –Gipuzkoan Aldundiak kudeatutako azkena–. Bestetik, batzar horietan eguneko zentroak –Aldundiak kudeatzen du– duen leku faltaz ere jardun genuen. Gaur egun 10 lagunendako lekua du eta 18ko itxaron zerrenda daukagu. Hori horrela, Aldundiak proposatu zigun eguneko zentroa handitzea 25 plazara arte eta geratzen zen eraikin zatia lagatzea Udalari erretiratuen egoitzarako, eraikina Diputazioarena da-eta".

Martinezek gehitu zuen Aldundiarekin egon eta gero, San Joxepe elkarteko zuzendaritzarekin batzarrak egin dituztela egoera azaltzeko eta egoitza kudeatzeko modua aurkitzeko. Hori horrela, zera adostu zuten bi aldeek: egoitza San Joxepe elkarteak kudeatzea urtebetez ondoen iruditzen zaion moduan, eta epe hori pasa eta gero balantzea egitea.

Agurne Barruso alkateak azaldu zuenez, kudeaketa San Joxeperi emanda "gure asmoa izan da egoitzako zerbitzuak berdin mantentzea. Izan ere, kudeaketa Udalak hartuta, ile-apaintzaile, tabernari eta antzeko lanpostuak lehiaketara ateratzera behartuta egongo ginateke. Kudeaketa elkarteak hartuz gero, zuek antolatuko zarete egokien pentsatzen duzuen moduan".

Horrekin guztiarekin, Carlos Arrondo San Joxepeko lehendakariak esan zien bertaratutako bazkideei zuzendaritzak ontzat jo duela proposamena eta "konfiantza botoa" eskatu zien. Bazkideek babestu egin zuten zuzendaritzaren erabakia.

### LEKU GUTXIAGO

Eguneko zentroa handitzean San Joxepe 100 bat metro gutxiagorekin geratuko da, eta horrek haserrea piztu du azken hilabeteetan bazkideen artean. Hala, eta alkateari hori adierazteko eta galderak egiteko aprobetxatu zuten bazkideek. Ile-apaindegia, podologia... lehen solairura eroango dituzte eta lekua berrantolatu egingo dute ahalik eta etekin handien ateratzeko. Lanok egiteaz Udala arduratuko da eta baita beharrezkoak izango diren altzari berriez ere. Eta hori ere hitzarmenean jaso dutela azaldu zuen Barrusok.

Leku galeraren harira, lau urteko kontua izango dela azaldu zuen Barrusok, Mizpirualde berria egin arte: "Dakizuen moduan, Mizpirualde egoitza berria egitekoak gara, gaur egungoa baino leku egokiagoan. Lau urte barru eginda egongo da, hara eroango dugu eguneko zentroa eta egoitza hau libre geratuko da".



GOIENKARIA

## Navarclesen gustatu zaizkie gure erraldoiak

Erraldoi konpartsa Kataluniako Navarcles herrian izan zen aurreko aste bukaeran. Erraldoi konpartsen topaketa baten parte hartzera joan ziren eta oso ondo pasa zuten: "Oso ondo hartu gintuzten", esan du Ibon Unamuno taldeko kideak. Topaketan ikusitako erraldoiak gustatu zaizkiela azaldu du Unamunok eta gehitu du: "Gureak ere asko gustatu zaizkie; harrituta geratu dira gure erraldoien kalitateaz. Eta gu geratu gara harrituta eurak erraldoiekin duten tradizioaz. Gurasoengandik seme-alabetara pasatzen den tradizioa da". Irudian Bergarako eta Navarcleseko konpartsak.

> LEHIAKETA

## Txorimalo lehiaketa deitu du Jardunek Erramu Zapaturako eta izenematea zabalik dago

Jardun elkarteak Txorimalo lehiaketa deitu du Erramu Zapaturako, apirilaren 4rako. Izenematea zabalik dago martxoaren 27ra arte Jardunen bulegoan edo 943 76 36 61 eta 943 76 08 19 telefono zenbakietan. Nahi duen edonork har dezake parte, bakarka nahiz taldeka –gehienez 8 lagun–. Adinaren araberako hiru multzotan egingo dute lehiaketa: 12 urtetik beherakoak 12-60 urte artekoak eta 60tik gorakoak. Txorimalo onen saritzeaz gain, haiei erantsitako esaldi onenak ere sarituko dituzte.

> LEHIAKETA

## Koldo Eleizalde lehiaketaren hamalaugarren edizioan txiste eta pasadizo generoa gehitu diote

Udaleko Euskara Batzordeak Koldo Eleizalde lehiaketaren XIV. Edizioa antolatu du. Aurten, gainera, ohikoez gain, genero berria gehitu du: txiste eta pasadizo generoa. Hori horrela, aurten honako generoetan lehiatzeko aukera egongo da: ipuin idatzia, bertsoak, komiki-tira, ipuin-kontaketa antzerkia eta txiste eta umorezko pasadizoak. Lehiaketan parte hartu ahal izango dute Bergaran jaio, bizi edo lan egiten duen edozeinek, eta lanek orijinalak izan beharko dute. Lanak aurkezteko azken eguna da apirilak 22.

**ARATUSTEAK** > HAINBAT EKITALDI

# Txokolate-jan solidarioa, pailazoak eta disko festa bihar, Aratusteak bukatzeko

Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoek ikuskizuna egingo dute 17:00etan kiroldegian

Beninen (Afrika) eskola eraikitzeko erabiliko dute txokolate-jan solidarioan jasotakoa



Pailazoek ikuskizuna egingo dute bihar arratsaldean kiroldegiko pilotalekuan. MARIAN GONZALEZ

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Aratuste-martitzena ekitaldiz beteta dator. Besteak beste, pailazoak, txokolate-jan solidarioa eta disko festa egingo dituzte bihar arratsaldean. Goizean, Errekalde herri eskolakoek eta Elkar Hezi ikastetxekoek Aratusteak ospatuko dituzte eskola orduetan.

Elkar Hezi ikastetxeko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleak 10:30ean irtengo dira kalera. Euskal Herriko kultura aberastasuna ezagutzeko asmoz, Amalur jainkosaren irudia landuko dute.

Errekalde herri eskolako neska-mutikoek kaldereroen jaia egingo dute. 11:00etan eskolako jolaslekuan elkartuko dira. Eguraldi txarra egiten badu, kiroldegiko frontoian egingo dute jaia.

**PAILAZOEN IKUSKIZUNA**

Aratuste-martitzeneko ekitaldia umeendako ikuskizunarekin hasiko dute. Hain justu ere, Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoek *Taulara!* ikuskizuna egingo dute 17:00etan kiroldegian. Sarrera doan da.

Ikuskizuna bukatu orduko Parrokiako Misio Taldekoek prest izango dute txokolatea plazan. 18:30etik aurrera banatuko dute txokolatea. Batutako dirua Beninen (Afrika) egin gura duten eskolara bideratuko dute.

Ordu berean, txorimaloak eta buruhandiak irtengo dira Santa Ana antzokitik eta kalerik kale ibiliko dira.

**DISKO FESTA**

Aratuste-martitzena girotzeko disko festa egingo dute plazako kioskoan, eta askotariko musika jarriko dute. Jaia bi zatitan egingo dute: hain zuzen ere, 20:00etatik 21:30era eta 23:00etatik 00:30era.




MUSIKA ESKOLA

## Zortzi domina ekarri zituzten Andoaindik

Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleek zortzi domina ekarri zituzten Andoaingo piano jaialditik, hilaren 14an eta 15ean. Hain justu ere, urrezko domina bat, zilarrezko bost eta brontzezko bi. Araceli Guridi eta Izaskun Barreña irakasleak oso gustura daude gaztetxoek egindako lanarekin. Jaialdian parte hartu zuten: Jone Etxeberriak, Koldo Gorostidik, Enaitz Ibabek, Eneko Ibabek, Asier Mantxolak, Lide Mantxolak, Sara Zubiak eta Iñaki Zumaldek.

### oharrak

DEIALDIA

**> Erromeria Lizargaraten**

Miren, Agurtzane eta Maite trikitilariek erromeria egingo dute Lizargaraten domekan, 11:00etan.

Bestalde, trikiti bazkaria egingo dute martxoaren 14an Larrain Gain elkartean Laja eta Narbaiza trikitilariekin. Txartelak Urbia eta Umerez tabernetan eros daitezke.

ERAKUSKETA

**> Frankismoak eragindako biktimen gaineko erakusketa**

*Izen guztiak, aurpegi guztiak* delako erakusketa dago kultura etxean martxoaren 18ra bitartean.

Bestalde, Intxorta 1.937 Kultura elkarteak antolatuta, *II. Errepublika eta Gerra Zibila Euskal Herrian* hitzaldia egingo du Jesus Gutierrezek kultura etxean, 19:00etan.

ZINEKLUBA

**> 'Padre nuestro' eguenean**

Eguenean, 20:00etan, kultura etxeko zinema aretoan.

**ZERBITZUAK**

# Ludotekari buruz, askotariko iritziak

Ezker abertzaleak egindako kritikei erantzun diete udal ordezkariek

**M.B.**> OÑATI

Aurreko astean Txaloka ludotekaren erabilerari eta kudeaketari buruz ezker abertzaleak komunikabideetan idatzitakoari erantzun dio Udalak.

Ezker abertzaleak zioen lau ume bakarrik dabiltzala ludotekan, eta bi arrazoi ematen zituzten: kuota ordaindu beharra eta kudeaketa Euskara Zerbitzuaren esku egotea. Gainera, esaten zuten gaztelekuko sotoa eta kuboa aste bukaeretan zabaltzen dituzten neurrian, ludoteka zapatuetan eta domeketan zabaldu beharko luketela. Bestalde, Ezker abertzaleak haurren heziketa integrala izateko eskolaz kanpoko ekintzen kudeaketa bateratua eskatzen du. Haur eta Gazte batzordeak batzar gehiago egin beharko lukeela gaineratu dute.

**UDALAREN ERANTZUNA**

Haur, Gazte, Euskara eta Hezkuntza batzordeburu Mikel Iturrospek, berriz, dio ludoteka zerbitzua Hezkuntza batzordeak kudeatzen duela.

Bestalde, esan du Kultura, Euskara, Haur, Gazte, Hezkuntza eta Prebentzio saileko teknikariek osatutako lan mahaiak koordinatutako ekintzak jartzen dituztela martxan; besteak beste, gaztelekuko sotoa eta kuboa zabaltzea. Iturrospek dio Haur eta Gazte batzordea bi astean behin biltzen dela, eta, hain justu ere, haurren eta gazteen aisialdia antolatzeaz arduratzen dela. Azkenik, hurrengo baterako kritika konstruktiboak egiteko eskatu diote ezker abertzaleari.

> DEIALDIA

## Curriculum berriaren gaineko tailerra Elkar Hezin

Curriculum berriari buruzko hitzaldi-tailerraren bigarren saioa egingo dute eguenean Elkar Hezi ikastetxeko Lehen Hezkuntzako eraikinean. *Ikasten ikasi konpetentzia nola sustatu familiatik?* delako hitzaldi-tailerra egingo du Joxe Amiama psikopedagogoak liburutegian, 18:30ean.

**ARETXABALETA** > HIRIGINTZA

# Mitarte berritzeko obrak apirilean hasiko dira

Mitarte kaleko hornidura eta saneamendu planean zehaztutako lanak esleitzeko lehiaketa deialdia argitaratuko dute asteon

**M.BITERI** > ARETXABALETA
Aretxabaletako Udalak Mitarte kaleko hornidura eta saneamendurako plan berezia onartu du, eta datozen egunotan lan horiek esleitzeko lehiaketa deialdia argitaratuko dute Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Jakina denez, Mitarte kaleko proiektu hori Espainiako Gobernuaren Tokiko Inbertsiorako Estatuko Fondoaren dirulaguntzarekin egingo da; horretarako 793.916,47 euro bideratzea aurreikusi du.

Esan bezala, hornidura eta saneamendu berriak jarriko dituzte eta lur azpiko azpiegiturak egokituko dituzte. Azken horren harira, besteak beste, ur hornidurak, argindarraren sarea, gasaren sarea eta telekomunikazioak berrituko dituzte. Argiteria, hiri-altzariak, seinaleztapen-sistema eta lorategiak ere aldatuko dira.

**MAILA BEREAN**
Gainera, Mitarteri, Durana eta Otalora kaleek duten itxura berdintsua emango diote, galtzadaharria erabiliz; eta kalea funtzionalagoa izan dadin, espaloia eta errepidea maila berean jarriko dituzte.

Inaxio Garro alkateak jakinarazi du modu horretan oinezkoendako espazioa handitzeaz gain, kaleko merkataritza sustatu eta iraunkortasuna bultzatu gura dutela espaloia eta errepidea maila berean jarrita.

Udalaren aurreikuspenak betetzen badira, kale horretako obrak apirilean hasiko dira eta abendura arte iraungo dute.


Mitarte kalea berritu egingo dute. MIRARI ALTUBE


Eneko Arrazuaren lana, iazko lehiaketako irabazlea. GOIENKARIA

**PINTURA** > III. MARGO LEHIAKETA

# Udalak martxoaren 29ko margo lehiaketarako oinarriak kaleratu ditu

**M.B.** > ESKORIATZA
Martxoaren 29an aire zabalean egingo den Eskoriatzako III. Margo Lehiaketako oinarriak kaleratu dituzte. Udaletik jakinarazi dute gura duenak parte har dezakeela eta teknika librea izango dela; hori bai, Eskoriatzako herria edo elizateak ageri beharko dira lanean.

Egun horretan oihalak 09:00etatik 11:00etara zigilatuko dituzte kultura etxean eta 14:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira Ibarraundin. Epaimahaiak erabakia 18:30ean jakinaraziko du eta ondoren sari banaketa egingo dute.

Hiru sari mota egongo dira: helduen atalean lehenak 500 euro irabaziko ditu; bigarrenak, 250; eta hirugarrenak, 150. 16 urtetik beherakoetan, irabazleak 100 euro lortuko ditu; bigarrenak, 50; eta hirugarrenak, 30. Herriko lan onenaren saria 150 eurorekin sarituko dute. Margolanak martxoaren 30etik apirilaren 17ra ikusgai egongo dira Ibarraundin.





AHTren lanak direla-eta Suña eta Untzillara doan bidegurutzearen arriskuaz ohartarazi dute, besteak beste. JONE INUNTZIAGA

**ARAMAIO** > AHT

# Gesalibar-Untzilla artean arretaz gidatzeko deia

AHTren lanak direla-eta bi auzo horien arteko bidearen arriskuaz ohartarazi du Udalak

MIRIAN BITERI > ARAMAIO
Aramaioko Udala oso arduratuta dago Abiadura Handiko Trena eraikitzeko obrak direla-eta Arrasate eta Aramaio arteko errepideak duen arriskuarekin.

Asier Agirre alkateak gidariei gomendatzen die Arrasateko Gesalibar eta Aramaioko Suña eta Untzilla auzoetara doan errepide arteko zatian kontu handiz gidatzeko: "Egunero obretako ehun kamioi inguru dabiltza gora eta behera, eta errepideak, zenbait lekutan, bost metro baino gutxiago dauzka zabaleran. Errepide oso arriskutsu bihurtu dute". Horren harira, salatu du tamaina dela-eta, kamioi batzuk errepide erditik joaten direla horrek dakarren arriskuarekin: "Errepide horretatik joaten direnei kontuz ibiltzeko eskatu nahi diegu, ibiltzen den kamioi kopuruarekin edozein tokitan topa gaitezke-eta batekin bidean".

**BILERAK**
Udalak egoera horri irtenbidea topatu gura dio eta dagoeneko bilerak izan ditu Diputazioarekin eta lanak egiten diharduen enpresarekin: "Negoziatzen gabiltza bai Diputazioarekin eta baita enpresarekin, lanekin jarraitu aurretik errepide bera zabal dezaten. Baina ez dute gura inbertsiorik egin bidea zabaltzeko; semaforoa bakarrik jarri nahi dute. Baina guk gogor jarraituko dugu negoziatzen".

Alkateak gogorarazi du Aramaion bi gunetan dihardutela lanean: Eskoriatzako mugako obrak; horiek oso aurreratuta ez daudela eta, beraz, kalte handirik oraindik ez dutela egin dio. Bolinburu izenez ezagutzen den gunean, baina, kalteak handiak direla salatu du: Bolinburu auzoko sarreratik baserrietara doan bidearen egoera penagarria da".

**LEINTZ GATZAGA** > NAGUSIAK

# Etxebizitzak nagusiendako zelan egoki daitezkeen azalduko dute eguaztenean

Berbaldia udaletxean izango da (17:00) eta aditu batek azalduko du zelan egin egokitzapenak eta zein laguntza dauden

MIRARI ALTUBE> LEINTZ GATZAGA
Nagusiak ondo moldatzeko etxean egin behar diren egokitzapenen gaineko berbaldia antolatu du Toki Eder erretiratuen elkarteak, Gipuzkoako erretiratuen eta pentsiodunen elkartearen bitartez. Otsailaren 25ean da, eguaztena, udaletxean (17:00), eta aditu bat etorriko da gaiaren gaineko azalpenak eman eta zalantzak argitzera.

Nagusiei, autonomo izaten jarraitzeko, oztopoak kendu eta segurtasuna bermatu behar zaiela uste dute adituek. Gaitasun fisiko eta psikikoak murriztu egiten dira adinarekin eta, sarritan, etxebizitzetan egokitzapenak egitea komeni da: komunean heldulekuak jarri, mailak kendu, bainuontzia dutxa bihurtu... Lan horiek guztiek diru gastua dakartela jakinik, nagusiek sarritan ez dituzte egiten. Baina badaude dirulaguntzak horietarako eta horien berri emango dute eguaztenean. Horregatik, Toki Eder elkarteko kideek uste dute oso berbaldi interesgarria izango dela gatzagarrendako.

**BASERRIETAN ALDAKETAK**
Gatzagan, gainera, baserri asko daude eta horietan oztopoak handiagoak izaten dira –bizilekua behean eta logelak goiko partean–. Udalak, hain zuzen, lurzoru hiritar ezinari dagokion arau bat aldatu gura du. Haren arabera, baserrietan aldaketak egiteko aukera egongo litzateke; hau da, bi etxebizitzatan banatu edo logelak beheko partean egin gora igo beharrik ez izateko. Aldaketa oraindik aztertzen dabil Udala.

**ANTZUOLA** > INGURUMENA

# Fruta-arbolak landatu dituzte erreka aldamenean

Gereziondoak, pikondoak eta aranondoak landatu dituzte eta fruiturik ez eman arren udaberrian loretan ikusiko ditugu

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Udaleko Nekazaritza batzordetik bultzatuta herritar talde batek arbolak landatu ditu Sanjosepe kalean, erreka aldamenean. Iaz auzolanean landatutako 50 arboletatik 12 ihartuta edo egoera txarrean zeuden; hortaz, zuhaitzok kendu eta fruta-arbolak ipini dituzte: gereziondoak, pikondoak eta aranondoak. Jose Mari Iturberen esanetan, "lurra pobrea denez ez dago frutak haziko diren esperantzarik, baina udaberrian lore koloretsuak eta politak ikusteko aukera egongo da".

**SAN JOSE INGURUA TXUKUNDUZ**
Erreka ondoan ez ezik San Joserako bidean ere egin dituzte lanak. Bidearen hasierako zatia garbitu eta bide osoko zaborra batu dute. Aurrerantzean ere San Jose parkea egokitzen jarraitzeko asmoa du Udalak bankuak berrituz eta garbiketa eginez. "Aldapa ez dugu lautuko ez eta Maristek bezain txukun zainduko, baina lasai joanez gero, nekagarria ez denez, herritarrak animatu nahi ditugu erabiltzera leku lasaia delako eta herriaren bista polita dagoelako bertatik", dio Iturbek.


Hainbat herritar ibili dira Sanjosepe kalean arbolak landatzen. GOIENKARIA

**ELGETA** > APARKALEKUAK

# Aparkatzeko hamar bat toki gehiago egiteko egitasmoa

Arazoak eguneko momentu puntualetan daudela uste dute udaletxean

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA
*Elgeta Danon Artian* egitasmoaren baitan egindako inkestan herritarrek agertu dute aparkaleku arazoa dagoela herrian. "Inbentario txiki bat egin dugu", adierazi du Hirigintza zinegotzi Iban Retolazak, "eta erdigunean 300 aparkaleku zenbatu ditugu. 500 garaje inguru daude eta dauzkagu 750 bat ibilgailu. Zenbakiak ez dira hain aldrebesak", esan du Retolazak. "Egia da eguneko momentu puntual batzuetan badauzkagula arazoak, eguerdian esaterako... Udalaren politika malgu jokatzea izango dela uste dut. Ez dut uste momentu puntual baterako aparkaleku piloa sortu behar dugunik".

**HAMAR BAT APARKALEKU BERRI**
Hirigintza zinegotziak azaldu du aparkaleku berriak sortzeko bi proiektu izan dituztela berriki mahai gainean. "Bata Salbador kalea eta saihesbidearen artean, eta bestea Zabala Hermanos eta saihesbidearen bitartean", esan du Retolazak. "Baina kostuengatik atzera bota ditugu hirigintza batzordean. Ez dira Udalaren lur sailak eta kostu handiko proiektuak dira".

Arazoari irtenbide bat eman guran, hirigintza buruak aurreratu du Udala 10-12 aparkaleku berri sortuko dituen proiektu batean dihardula lanean. "Aurten ekintza txiki batzuk burutzeko asmoa daukagu aparkamendu berri horiek sortu ahal izateko".



**> FUTBOLA**
Antzuolak Anaitasunari irabazi dio Zubikarairen gol batekin, eta zulotik urrundu da **> 22**



**> ESKUBALOIA**
Verkol Aloña Mendik igoera fasean du burua, ligako azken partiduan Leizarani irabazita **> 23**



**> SASKIBALOIA**
Bigarren laurdeneko minutu txarrek irabaztea eragotzi diote MUri Bidegintzaren kontra **> 24**



**BORROKA** Euskal selekzioak eta Portugalgoak lehia gogorra izan zuten gazte mailan, Arrasatekoa lagunarteko partidua izan arren. JULEN IRIONDO

**ERRUGBIA** > EUSKAL SELEKZIOAK MOJATEGIN

# Espainiako txapelketarako prestaketa, Arrasaten

**KADETEAK**
35 eta 0 galdu zuten Belgikarekin, baina jarrera ona izan zen

**GAZTE MAILAKOAK**
Partidu polita jokatu eta 15 eta 0 irabazi zioten Portugali

**JULEN IRIONDO** > ARRASATE

Kadete eta gazte mailetako euskal selekzioak Arrasaten izan dira asteburuan. Entrenamendu saioak egin zituzten zapatuan, eta domekan nazioarteko selekzioen aurka partidu bana jokatu zuten Mojategin. Apirila amaieran eta maiatza hasieran Espainiako txapelketak jokatuko dituzte –kadeteek Valladoliden eta gazte mailakoek Sevillan–, eta horietarako prestaketan aurreneko urratsa izan da Arrasateko egonaldia.

**PARTIDU POLITAK**

Domekan, kadete mailakoa izan zen aurrena jokatu zen partidua. Euskal selekzioak Belgika izan zuen aurkari. Belgika da, hain justu ere, Europan gazte mailetan lan handiena egiten ari den selekzioetako bat, Alemaniarekin batera. Eta hori igarri zen Mojategin. 0 eta 35 galdu zuen Euskal selekzioak. Agerian geratu zen elkarrekin sarri entrenatzen dutenen eta aurreneko aldiz asteburu honetan batu direnen arteko aldea. Gainera, Euskal selekzioak 35 laguneko taldea ekarri zuen Arrasatera, eta hautatzaileak denei eman gura izan zien jokatzeko aukera, jokalari onenekin jokatu eta lehiakorrago izateari uko eginez. Dena dela, eta markagailuan alde handia egon arren, euskal jokalariek jarrera bikaina erakutsi zuten, azken unera arte baloi bakoitzagatik borrokatuz.

Kadeteen ostean gazte mailako selekzioen txanda izan zen. Aurrez aurre Euskal selekzioa eta Portugal. Eta hemen bai, hemen nagusi izan ziren etxekoak, 15 eta 0. Lehenengo zatian egin zuten euskaldunek aurreneko entsegua, eta bigarrenaren hasieran bigarrena. Azken minutuetan gogoz saiatu ziren portugaldarrak aldea gutxitzen, eta denbora dezente ibili ziren entsegu marratik gertu. Baina berriz ere etxekoek lortu zuten saria.

Kadeteetan hasi eta hiru urte daramatzate gazte mailako jokalariek elkarrekin entrenatzen eta jokatzen, eta hori antzeman egiten da. Bakoitzak jokatzeko modu bat izaten du bere klubean, baina selekzioak ere lortu du bere izaera edukitzea. Dena dela, Portugali irabaztea ezustekoa izan zen, kategoria honetan Europako txapelketan talde indartsua izango da-eta Portugalgoa.

**Jose Miguel Galdos** > Federazioko zuzendaria

## "Talde denetako jokalariek dute selekzioan aritzeko aukera"

**J.I.** > ARRASATE

**Euskal Federazioko teknikariak oso gustura geratu dira Arrasaten egindako egonaldiarekin. Hona etorri izana kasualitatea ez dela diote.**

**Zergatik egin dituzue asteburu honetako ekintzak Arrasaten?**

Arrasatera etorri bagara ez da kasualitatez izan. Apustu handia egin dute. Instalazio ederrak dituzte, euren talderako zuzendari tekniko bat ere ekarri dute eta lanean ari dira beheko mailekin eta eskolako umeekin. Federazioak ikusten duenean klub batek horrelako ahalegina egiten duela lagundu egiten dio.

**Arrasate moduko talde txikietako jokalariek ere badute aukera selekzioan jokatzeko?**

Bai. Asteburu honetako partiduetan bat ere ez zegoen, baina saiatzen gara ikusi dezaten ateak denondako daudela irekita. Nazioarteko selekzioen aurkako partiduetan hainbeste ez, baina Frantziako edo Ingalaterrako ligetako taldeen aurka lagunarteko partiduetan aritzen garenean aukera gehiago izaten dute. Federazioko begiraleek talde guztien partiduak ikusten dituzte; honetaz gain, epaileek agindua dute partiduren batean jokalari interesgarriren bat ikusiz gero federazioari jakinarazteko.

**Ze maila dute euskal selekzioek?**

Ona. Iaz Espainiako txapeldun izan ginen gazte mailan, eta bosgarren kadeteetan. Kadeteetan ez gara inoiz txapeldun izan. Zailagoa da, ze kadete mailakoak ezagutu berri ditugun jokalariak izaten dira. Gazte mailakoek denbora gehiago daramate gurekin, eta aukera gehiago dugu.



J.I.

**ERREGIONAL MAILA** > JAITSIERAKO POSTUETATIK URRUNDU DIRA GORRIAK

# Penaltia huts eginda, sufritu egin du Antzuolak irabazteko

Zubikaraik sartu zuen gol bakarra lehen zatian, eta penaltiaz gain zutoin bat ere jo zuten etxekoek; baina azkoitiarrek ere eskura izan zuten berdinketa

ANTZUOLA
**1-0**
ANAITASUNA



Gola egin eta beste hainbat aukera izan zituen Zubikaraik. JOSETXO ARANTZABAL

**JULEN IRIONDO** > ANTZUOLA

Tentsioa, tentsio handia sumatzen zen Eztala futbol zelaian Antzuola eta Anaitasunaren arteko lehian, bi taldeak zeuden eta atzeko postuetan murgilduta. Garaipenarekin –hirugarrena jarraian– gorago begira daude orain antzuolarrak.

Lehenengo zatian bigarrenean baino hobeto ibili zen Antzuola. Gola ez zen, hala ere, 34. minutura arte iritsi. Ezker hegalean, Auritz Guridik pase ederra sartu zion barrutik Josu Zubikarairi; honek lekua topatu, jaurti eta egin zuen gola. Atsedenaldia baino lehen beste aukera on bat izan zuen Zubikaraik berak, baina atezainak geratu egin zuen baloia.

**ZUBIKARAI PROTAGONISTA**

Bigarren zatian ere Antzuolako ezkerra izan zen protagonista nagusia. Atezainaren aurrean bakarrik geratu eta lagunari pasea eman zion hala ere. Kontrario batek moztu zuen baloia eskuaz. Penaltia Mendizabalek jaurti zuen, baina Anaitasunako atezainak geratu. Handik lasterrera azkoitiarrek buruz-buruko jokaldia izan zuten beste atean, baina hauek ere ezin. Azken aukera Zubikaraik izan zuen berriro, baina baloiak zutoina jo zuen.

**PREFERENTEA**

# UDAk barik Hernanik hartu du lidertza

PASAIA
**3-1**
ARETXABALETA

**JULEN IRIONDO** > BERGARA

Gehiagorako merituak egin arren punturik gabe itzuli zen Aretxabaleta Pasaiatik. Lehenengo zatia husna amaitu zen, eta bigarrena hastearekin iritsi zen etxekoen lehenengo gola, korner batean. Laster berdindu zuten aretxabaletarrek, Haritz Igartuaren bitartez.

Garaipenaren bila joan ziren orduan Gordobilen mutilak, baina aurkako falta batean lo hartu eta Pasaiak egin zuen bigarrena. Berdintzeko bi aukera on izan zituen Aretxabaletak, azken gola ere etxekoek egin zuten, ordea, luzapenean. Aretxabaletak bezala atzeratutako lehia izan du Hernanik asteburuan; irabazi eta bera jarri da lider.

## emaitzak eta sailkapenak

BESTELAKOAK

| | |
|---|---|
| **LEHEN ERREGIONALA** | |
| Antzuola-Anaitasuna | 1-0 |
| BTLS-Lazkao | 2-2 |
| Aretxabaleta-Ilintxa | 0-3 |
| Orioko-Bergara | 0-1 |
| Elgoibar-Mondra | 2-1 |
| **BIGARREN ERREGIONALA, IGOERA** | |
| Soraluze-Bergara | 4-1 |
| **GAZTEEN EUSKADIKO LIGA** | |
| Aretxabaleta-Abetxuko | 3-0 |
| Bergara-San Ignacio | 4-0 |
| **OHOREZKO GAZTEAK, KOPA** | |
| Lagun Onak-Aloña Mendi | 3-1 |
| **1. MAILAKO GAZTEAK, IGOERA** | |
| Lazkao-Mondra | 2-2 |
| **1. MAILAKO GAZTEAK, KOPA** | |
| Bergara-Soraluze | 2-0 |
| **OHOREZKO KADETEAK, IGOERA** | |
| Aretxabaleta-Real Union | 1-1 |
| Urola-Bergara | 4-3 |
| **OHOREZKO KADETEAK, KOPA** | |
| Arrasate-Aloña Mendi | 2-31 |
| **KADETEEN 1. MAILA, IGOERA** | |
| Aretxabaleta-Ondarroa | 0-1 |
| **KADETEEN 1. MAILA, KOPA** | |
| Urola-Arizmendi- | 3-0 |
| Bergara-Lagun Onak | 2-8 |
| **EMAKUMEZKO KADETEAK, IGOERA** | |
| Ostadar-Bergara | 1-0 |
| **EMAKUMEZKO KADETEAK, KOPA** | |
| Orioko-Mondra | 4-0 |
| Arizmendi-Luberri | 4-1 |



**EUSKADIKO TXAPELKETA** > SAILKAPENEKO BIGARREN POSTUAN GERATU DIRA

# Liga garaipenarekin amaitu eta igoera faseari ekingo diote orain oñatiarrek

Gorriek ez zuten lehenengo zati ona jokatu Leizaranen kontra: baloi asko galdu eta kontraeraso asko egin zizkieten; bigarrenean hobera egin zuen jokoak


Arantzazu Arabaolaza baloia atera jaurtitzen; hiru gol egin zituen Arabaolazak. Partiduko golegile nagusia Leizarango Arruti izan zen, hamairurekin. JOSETXO ARANTZABAL

VERKOL ALOÑA MENDI
**23-20**
LEIZARAN

**Aloña Mendi** > Zabaleta, Arabaolaza (3), Goñi, Larrañaga (4), Lizarra (1), Manuel (5), Barrena, Zubeldia (1), Martinez de Zuazo (2), Sanchez, Elortza, Arteaga (5), Unamuno eta Cifuentes (2).

**Leizaran** > Garmendia (1), Loiarte, Zendoia, Lizasoain (1), Arruti (13), Etxeberria, Irastorza (2), Gorostidi, Aierbe, Peñalba, Laskuz (3), Jauregi, Amundarain eta Colomo.

**Bestelakoak** > Liga erregularreko azken jardunaldia Zubikoa kiroldegian.

**JULEN IRIONDO** > OÑATI

Verkol Aloña Mendik ezer gutxi zuen jokoan domeka eguerdiko partiduan: liga erregularra bigarren postuan amaitu edo lehenengora jauzi egin, hori besterik ez. Izan ere, sailkapeneko lehenengo lauek jokatuko dute datorren asteburutik aurrera igoera fasea, eta oñatiarrek aspalditxotik zuten ziurtatuta hor egotea. Verkolek moduan Zarautz liderrak ere irabazi egin du azken jardunaldian, eta eurek amaitu dute lehenengo.

Leizaranek bai; Leizaranek asko zuen jokoan Zubikoako lehian. Irabazita onenen artean legoke Andoaingo taldea ere, baina galdu eta kanpoan geratu dira.

**HASIERA MOTELA**

Aloñako neskak ez ziren ondo hasi, ez defentsan, ez erasoan. Baloi asko galdu zituzten, eta kontrarioen kontraerasoak eragin. Lehenengo gola egitea asko kosta zitzaien, eta hiru goleko aldea ere izan zuten kanpokoek. Hala ere, atsedenaldian 12 eta 11 ari zen irabazten Verkol. Bigarren zatian hobeto jokatu zuten.

Igoera fasea Zarautzek, Aloñak, Ereintzak eta Jarrillerasek jokatuko dute, eta lehenengo biak igoko dira.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA** > ATZEALDEAN BORROKAN JARRAITU BEHAR DU BERGARAK

## Partidu herenera arte eutsi zuen azken sailkatuak, baina ez zen ezustekorik egon

Kanpokoak aurretik ere ibili ziren hasieran. Gero, ordea, kontraerasoan nagusitu ziren mahoneroak

SORALUCE B.K.E.
**39-20**
URNIETAKO


Uribe jaurtiketa egiten, aurreko partidu batean. JOSETXO ARANTZABAL

**JULEN IRIONDO** > BERGARA

Partidu hasiera kaxkarra egin zuen Soraluce B.K.E.-k, eta hori ondo aprobetxatu zuten urnietarrek markagailuan aurreratzeko. Ez zuten, ordea, alde handirik hartu eta partidu erdirako berdindu zuen Bergarako taldeak. Parekotasunak beste minutu batzuk iraun zituen, baina lehenengo zatiko azkenekoetan hobeto jokatu zuten etxekoek eta ihes egin zuten markagailuan. Atsedenaldian 18 eta 11 zeuden, eta bigarren zatia erraza izan zen.

Defentsan ondo ibili ziren mahoneroak, Errasti atezaina ere primeran aritu zen, eta kontraerasoan min asko egin zuten. Gorka Uribe nabarmendu zen erasoan. Irabazi arren, puntuak batzen jarraitu behar dute bergararrek, atzetik gertu daude eta.

**EUSKADIKO TXAPELKETA** > PORROTA GASTEIZEN

## Partidu parekatua izan arren beti aurretik ibili zenak irabazi zuen

Aldaketa bakar batekin jokatu zuten arrasatearrek; horrek eta atezainaren egun txarrak baldintzatu zuten partidua

SUCESORES DE AGUIRRE
**32-31**
FORD MUGARRI

**JULEN IRIONDO** > BERGARA

Ford Mugarrik jaitsiera postuetan dauden taldeekiko duen aldeak dezentekoa izaten jarraitzen duelako; horregatik eta arrasatearrek jokalari eskasiak baldintzatuta jokatu zutelako ez da hain kezkagarria zapatuko porrota. Atzeko taldetxoaren aurretik Arrasatekoa da lehenengo taldea, baina beste partidu bat irabazita salbu dira Edu Orgazen mutilak, eta oraindik aukera asko dituzte horretarako.

Gasteizko neurketan aldaketa bakarra egiteko modua izan zuen Orgazek, eta horrela ez da erraza lehiakor izatea. Eta kontua da, liga amaitu bitartean ez dela panorama askorik aldatuko; luzetxo egingo zaie beraz arrasatearrei.

**ALDE TXIKIAK**

Partidu hasieratik hartu zuen aurrea Gasteizko taldeak. Ez zuen, hala ere, behin ere hiruzpalau gol baino gehiagoko alderik eduki.

Erasoan nahikoa ondo moldatu ziren Ford Mugarriko jokalariak, baina zapatuko zulo handiena atzealdean egon zen. Arrasateko atezaina ohiko geldiketa portzentajeetatik urrun ibili zen, eta normalean sartzen ez diren gol asko jaso zituen.

Atsedenaldian 13 eta 11 ari ziren irabazten arabarrak, eta bigarren zatia ere estua izan bazen ere azkenean etxean geratu zen garaipena. Datorren jardunaldian aurreko postuetan dagoen Lea Corazonistas hartuko du etxean Ford Mugarrik.

**SASKIBALOIA** > LEHEN MAILA

# Bigarren laurdenean lasaitzeak partidua galarazi zien MUkoei


Hainbat saskiratze huts egin arren, defentsan zuzen ibili ziren. JOSETXO ARANTZABAL

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
**74-82**
BIDEGINTZA

**Mondragon Unibertsitatea** > I. Zeziaga (27), Kintana (16), A. Zeziaga (2), Isasa (8), Barbero (7), Moratxo (3), Arantzabal (6), Rodriguez (2), Bidaburu (3). Arexolaleiba, Atxa eta Balantzategi.

**Bidegintza** > Sexto (23), Calvo (11), Intxaurraga, Lezama (14), Gomez (17), Martinez (1), Carmona (7) eta Akasuso (9).

**Laurdenetako emaitzak** > Lehenengo laurdena: 20-22. Bigarren laurdena: 31-41. Hirugarren laurdena: 56-59. Laugarren laurdena: 74-82

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE

Mondragon Unibertsitatearendako partidu garrantzitsua izan arren, bigarren laurdenaren amaieran egindako akatsak erabakigarriak izan ziren azken emaitzarako, ordura arte egoki egindako lana bertan behera geratu baitzen.

Fin hasi zuten bi taldeek partidua, markagailuan elkarren parean. Alderik handiena sei puntukoa izan bazen ere, defentsa egokiari esker berdintzera iritsi ziren, baina lehen laurdenaren amaieran bizkaitarrak berriz aurreratu ziren.

**HIRU MINUTUZ 'LASAITUTA'**

Bigarren laurdenari ere gogoz ekin zieten, defentsan zuzen eta erasoan gogor, nahiz eta saskiratzeetan huts egin zuten arrasatearrek. Gainera, bigarren laurdenaren amaieran hiru minutuko tartean etxeko jokalariak "lasaitu" egin zirela esan zigun Javi Zurbano entrenatzaileak, eta akats hori aprobetxatuz aurkariak markagailuan aurreratu egin ziren; hiru minutu horietan zazpi puntuko aldea atera eta partiduaren erdira 31 eta 41eko emaitzarekin heldu ziren.

Atsedenaldian, zaleek ez ezik jokalariek ere txokolate beroa hartu zutela zirudien, indarberrituta atera baitziren kantxara. Hirugarren laurdenean makalaldia izan zuten Bidegintzakoek, eta etxekoek hori aprobetxatu zuten azken bi minutuetan zazpi puntu egin eta azken laurdenera 56 eta 59 emaitzarekin heltzeko.

**ARBITROAK ZORROTZ**

Partiduko azken laurdenean Colino eta Canchez epaileak eta joko nahasia izan ziren protagonista. Ointxek lau falta jaso zituen eta entrenatzaileak ere falta teknikoa. "Bizkaitarrek tarte horretan bi falta baino ez zituzten jaso. Badirudi gure kontaktuak eurenak baino okerragoak direla, legez kanpokoagoak-edo", esan zigun Javi Zurbanok.

Bidegintza aurreratu zen, bai markagailuan eta baita jokoan ere, eta amaierara arte eurek izan zuten partiduaren kontrola. Etxekoak saiatu ziren partidua irabazteko borrokan, baina talde lanean baino bakarka ahalegindu ziren eta jokoa nahastea baino ez zuten lortu.

Kintanak bost puntu egin eta tartea txikitu zuen; partidua amaitzeko minutu bat falta zela bost puntu aurretik ziren bizkaitarrak, eta azken emaitza ere euren aldekoa izan zen: 74 eta 82.

Partidua galduta hurrengo faserako estu ibiliko dira Mondragon Unibertsitateko mutilak. "Intentsitate eta indar gehiago behar dugu irabazteko eta maila mantentzeko. Ezin dugu beste hutsik egin hemendik aurrera, izan ere, galtzen dugun partidu bakoitzeko maila autonomikotik gertuago egongo gara", esan zigun entrenatzaileak emaitzarekin oso penatuta.

**Imanol Zeziaga** > Joko antolatzailea

## "Motibazioa landu behar dugu"


J. A.

**I.A.** > ARRASATE

**Emaitzarekin triste egon arren, aurrera egiteko gogoz daudela erakutsi digu Imanol Zeziagak, baina motibazio apur bat falta zaiela.**

**Partidua garrantzitsua zen, ezta?**

Bai, irabaztea garrantzitsua zen hurrengo faserako garaipen bat gehiago izango genukeelako. Hurrengo ligaxkan beste partidu bat irabazi beharko dugu honi aurre egiteko.

**Zer dela eta gaurko hutsegitea?**

Entrenatzaileak esan digu hiru minutuko hutsartea izan dugula bigarren zatian; hamar puntuko aldea atera digute aurkariek. Hori askotan gertatzen zaigu, lasaitu egiten garela dirudi. Taldean izan dugu jokalari baten hutsunea, baina hori ez da aitzakia.

**Zure burua nola ikusi duzu partiduan?**

Ondo, nik jaurtiketa baloiak sartu dira behintzat, baina hori ez da dena, talde lana da balio duena.

**Sailkapenean nola geratu zarete?**

Azkenak. Partidua irabaziz gero ere azkenak ginateke, baina beste taldeko azkenak gu baino okerrago leudeke. Orain, euren parean gaude. Hala ere, uste dut hurrengo fasean denok parean ibiliko garela.

**Zein helburu duzue aurrerantzean?**

Mailaz ez jaistea. Horretarako partidu guztiak irabazi behar ditugu eta asko landu behar dugu motibazioa.

> TXIRRINDULARITZA

### Gaur Quebrantahuesos proban izena emateko bigarren aukera

Ekainaren 20an izango da estatuko proba zikloturista nagusiena, Quebrantahuesos. Otsailaren 16an zabaldu zuten izenematea baina webgunea kolapsatu eta bertan behera utzi zuten. Oraingoz 3.500 lagunek eman dute izena eta guztira 8.500 txirrindularirendako lekua dagoenez, gogoz geratu ziren gainontzeko zaleek gaur, hilak 23, astelehena, egin beharko dute bigarren ahalegina *www.quebrantahuesos.com* helbidean 10:00etatik aurrera.

> DUATLOIA

### Martxoaren 6ra arte zabalik Oñatiko duatloiko izenematea

Martxoaren 14an, zapatua, arrasaldeko lauretan hasita jokatuko da Oñatiko duatloia. Parte hartzaileek korrika zortzi kilometro egin ostean, 40 kilometro egingo dituzte bizikletaz eta beste lau berriz korrika. Izenematea zabalik dago federatuendako eta martxoaren 6ra arteko epea izango dute *www.triatloi.org* helbidean. Federatu gabeek bihartik, martxoaren 2tik 6ra bitartean dute aukera. Antolatzaileek 300 lagun inguru espero dituzte.

### Eskoriatzako neskek Zarauztarren aurka galdu egin zuten

Arizmendi-Eskoriatza taldeko neskek zarauztarren kontra jokatu zuten partidua zapatuan etxean. Lehenengo zatia oso gaizki hasi zuten eskoriatzarrek. Bigarren eta hirugarren laurdenetan aurkariei eusteko gai izan ziren eta 12nako berdinketara iritsi ziren. Azken laurdenean, ordea, zarauztarrak aurreratu ziren markagailuan eta 23 eta 39 izan zen emaitza. Entrenatzailearen falta sumatu zutela esan digute jokalariek.


JOSETXO ARANTZABAL

**David Doblas** > Bruesa GBC taldeko jokalaria

# "Ez dut inoiz ahaztuko Urizen pasea joan den urteko finalean"

**JASONE ZABALA** > ESKORIATZA

**David Doblas (Pedreña, 1981) Bruesa taldeko pibota da (2,06 metro). Denboraldi txukuna egiten dabil aurten Bruesa GBC taldearekin. Joan de astean Eskoriatzan izan zen Pau Orthezen aurka adiskidantzazko partidua jokatzen, eta Doblasekin hitz egiteko aprobetxatu genuen.**

**Ez dakit jende askok jakingo duen, baina hasierako saskiratzeak, birrintzeak eta txapelak CB Solares taldean, Kantabrian, egin zenituen. Nola gogoratzen dituzu hasiera haiek?**

Hasierak oso politak izan ziren, saskibaloi munduan nire lehen urratsak izan ziren-eta; urtebete eskas egon nintzen Kantabrian jokatzen eta oroitzapen oso onak dauzkat; garai hartan nire lagun zirenek orain ere lagun izaten jarraitzen dute.

**Ezagutzen duzu Debagoieneko saskibaloia?**

Ez dut oso ondo ezagutzen; Donostiatik urrun samar gelditzen da, baina Donostialde, Azpeitia eta Azkoitia inguruan nola jokatzen duten ezagutzen dut eta badakit lana ondo egiten dutela; Donostiako Easo taldean entrenatzaile lanak egiten ditut, kadete eta gazte mailetan jokatzen dabiltzan gazteekin.

**Iurbentiaren aurkako derbia irabazi egin zenuten; gainera, taldeak eta zuk zeuk ere joko ona erakutsi zenuten. Horrela jarraituz gero, Bruesak mailari eusteko aukera izango du aurten?**

Bilbotarren aurka jokatu genuen moduan jokatzen badugu datozen partiduetan, ziur nago datorren urtean ACB ligan egongo garela, zalantzarik gabe; gure arazoa da beti ez dugula jokatzen bilbotarren aurka jokatu genuen moduan, eta joko bolada txarrak izaten ditugu. Iurbentiaren aurka erasoan eta defentsan ondo aritu ginen eta talde moduan jokatu genuen; eta hori da, azkenean, gure indarra, momentu honetan horixe da gakoa.

**Illumben hamabostean behin izaten den giroa nola bizi duzue jokalariek?**

Oso polita da; nik ez ditut urte asko jokatu ACB ligan, baina Donostiatik kanpora jokatu ditudan taldeetan ikusi dut nolakoak diren kantxak, zenbat ikusle doazen bertara... Illumbera jende asko etortzen da, eta zaleek babesa ematen digute; hamabostean behin Illumben jokatzen dugunean etortzen den ikusle kopurua kontuan hartzen badugu, esan nezake Bruesako jarraitzaileek Euroligako talde handi bateko jarraitzaileen antza dutela.

**Duela 14 urtetik –Baskoniako gazte taldean hasi zen– talde askotan ibili zara jokatzen. Zer gelditzen da David Doblas hasiberri hartatik? Garai haietako lagunik bai?**

Ez dauka zerikusirik 14 urterekin Gasteizera heldu zen David Doblasek oraingoarekin; ordutik gauza asko aldatu dira. Garai hartan gaztea nintzen eta ez nekien ondo jokatzen; jokalari oso astakirtena, handia eta lodi samarra. Jokalari guztiekin ikamikak izaten nituen eta zoro samarra ere banintzen. Lagunak? Calderon laguna dut, baita Gasteizen etxebizitzakide izan nuen Ricardo Uriz, orain Donostian taldekide daukadana.




David Doblas, eguazteneko partiduaren ostean. IMANOL SORIANO

**"Garai hartan gaztea nintzen eta ez nekien ondo jokatzen; jokalari oso astakirtena, handia eta lodi samarra nintzen"**

**Zer da jokalari profesionala izatearen alderik onena eta txarrena?**

Alde ona da gustukoen dudana egiten ari naizela eta horregatik dirua irabazten dudala; umeak entrenatzen pasatzen ditudan orduak ere gustuko ditut; txarrena, besteak beste, etxetik kanpora egotea da, eta ezin zarela egon leku finko batean. Orokorrean, jendeak onerako eta txarrerako ezagutzen zaitu, pertsona ezaguna zarelako.

**Orain arte izan duzun aurkari onena?**

Nire ustez, defentsa eta erasoko jokoan jokalari zailena, onena eta gustukoena Luis Scola izan da; haren aurka jokatzen nituen partiduetan oso motibatuta ateratzen nintzen kantxara; ahal izan dudan guztietan defendatu izan dut; barruko jokoan dagoen jokalari onenetarikoa da.

**13 zenbakiarekin jokatzen duzu. Askorendako ez da gogoko zenbakia. Zergatik eramaten duzu zuk?**

Ezin inoiz egin agintzen didatena... Nire sineskeriak ditut, baina niretzat magia duen zenbakia da; jendearen gustukoa ez den zenbakia izatea nahiko arrazoi da niretzat zenbaki polita izateko.

**Zein izan da 14 urtean zehar gehien gogoratzen duzun saskiratzea?**

Saskiratze polita izateagatik baino gehiago, izan zuen garrantziagatik daukat gogoan bat: joan den urtean Bruesa taldeak ACBra igotzeko jokatu zuen finalean, Ricardo Urizek eman zidan pase baten ondorioz sartu nuena. Partidua ia erabakita utzi zuen saskiratze hark. Niretzat, ahaztu ezingo dudan balioa duen saskiratzea izan zen.

**Datorren urtean Donostiako pintxo ederrak jaten jarraituko duzu ala beste leku bateko sukaldaritza probatzera joango zara?**

[Barre] Ezin diezaioket galdera horri erantzun. Saskibaloia ez da futbola bezala; denboraldia amaitzen denean –maiatzean– hitz egin beharreko gauzak dira horiek. Ez dut inoiz halakoen berri izan nahi denboraldia amaitu arte, ez badator Panathinaikos taldea bi milioi eurorekin! Bestela, David Doblas ez da Donostiatik mugituko.

Nahi dudana da Bruesa ACB ligan mantentzea beste urte bat gehiago; ni Donostian pozik nago eta klubak egin beharreko ahalegina egiten badu, ni Donostian gelditituko naiz.

**Unibertsitatean ere bazabiltza, ezta?**

Bai; hain zuzen ere, Lehen Hezkuntzako maisu ikasketak egiten ari naiz. Gehienbat, deskonektatzearren. Saskibaloiak ez du betiko bizi izateko moduan ematen, ez bazara maila oso oneko jokalaria. Nire betiko ilusioa izan da maisu izatea, eta seguru nago lortu egingo dudala.

**Horrenbeste urte zure herritik kanpora –Pedreña–, faltan igartzen dira etxekoak ala ohitu egiten da bat?**

Ohitu egiten zara, baina saskibaloian jokatzeko ilusioa amaitzen zaidanean, nire etxera joango naiz, Pedreñara, arrantzako kanabera hartu, lasai egon eta umeei irakastera.

M-1
EUSKO
LEGEBILTZARRERAKO
HAUTESKUNDEAK
2009

# Hauteskundeen jarraipena Debagoienean

> Emaitzak
> Eguneko gora beherak
> Ordezkari politikoen iritziak
> Analisi eta balorazioak
> Debagoieneko datu guztiak

**Erosi astelehenean egunkari saltokietan edo egin zaitez harpidedun 943 25 05 05**

ASTELEHENEKO Goienkaria

> Saio berezia domekan, zuzenean, 19:45etik aurrera
> Emaitzak
> Eguneko gora beherak
> Ordezkari politikoen iritziak
> Analisi eta balorazioak
> Debagoieneko datu guztiak

**Goiatz Aranak eta Julen Iriondok aurkeztua**
**Elena Laka eta Mikel Lezamiz iritzi emaileekin**

Goitb
Goiena Telebista

> Domekan, Debagoieneko datuak jaso ahala, sarean
> Intzidentziak, herriz herri
> Uneoro berritzen
> Iritziak emateko aukera

**www.goiena.net**

Goiena.net

> GOITBko domekako hauteskundeen gaineko saio berezia irrati bidez zuzenean jarraitzeko aukera
> Astelehen goizean, saio berezia
> Analisiak eta balorazioak
> Iritziak

**FM 107.7**

ARRASATE IRRATIA
FM 107.7

Goiena

OÑATI

# Hotzari aurre egiteko kirola aukeratu zuten Oñatiko umeek

**KIROL ANITZ** Zapatu goizean, eskubaloian, areto futbolean eta saskibaloian jokatu zuten gaztetxoek

**GUZTIAK MOZORROTUTA** Aratusteak ospatzeko gogoz azaldu ziren Oñatiko gaztetxoak Zubikoara

**GIRO BIKAINA** Kiroldegiko harmailak gainezka egon ziren, gurasoek ez dute seme-alaben partidu bat ere galtzen

**NEREA MENOR** > OÑATI

Mozorroa janzteko irrikitan azaldu ziren bailarako gaztetxoak Zubikoa kiroldegira. Batzuek ospatu dituzte aratusteak; Txantxiku eskolako ikasleak adibidez, hippi jantzi ziren. Beste batzuek martitzenean ospatuko dituzte. Bitartean, zapatu goiz hotzean, kirola egitea aukeratu zuten berotzeko.

Goizean goizetik, saskibaloian, areto futbolean eta eskubaloian aritu ziren ikasleak. Hiru zatitan banatu zituzten kiroldegiko kantxak eta eguerdira arte bertan aritu ziren oñatiarrak. Izerditan ikusi genuen bat baino gehiago, gazteek ahal duten guztia egiten dute partidu on bat jokatzeko.

Zapatu ezin hobea izan zen aurrekoa. Harmailetatik umeen guraso eta lagunek animuak eman zizkieten jokalariei, eta txaloekin saritu zituzten hauen trebetasun eta hanka-sartzeak; azken finean, jolastea da garrantzitsuena, elkarrekin ondo pasatuz guztiak dira irabazle. "Oraintxe, galtzen doa gure taldea, baina ez du axola, ondo pasatzen dugu jolasten eta hori da garrantzitsuena", kontatu ziguten jokalari gazteek.

**INGURUAN ERE ESKOLA KIROLA**

Oñatin golak sartzen zituzten bitartean, Bergarako umeek Labegaraietako kiroldegian ederto pasa zuten zapatu goiza. Leintz bailarakoek aldiz, aratusteak direla eta, jai izan zuten asteburuan. Hortaz, gogoz arituko dira datorren astean Aretxabaleta, Aramaio, Leintz-Gatzaga, Arrasate eta Eskoriatzako gaztetxoak.




NEREA MENOR

**Udala.** Urkok, Iosuk, Erikek, Unaik, Imanolek, Aitorrek, Ionek, Aderrek eta Unaik osatzen dute taldea.




NEREA MENOR

**Duru.** Iñaki, Ander, Aritz, Julen, Ion eta Asier saskibaloian aritu ziren zapatu goizean.




NEREA MENOR

**Pagoa.** Uxuek, Amaiak, Nagorek, Nagorek, Leirek, Anak, Gorettik eta Anek eskubaloian jokatu zuten Zubikoan.



NEREA MENOR

**Haritza.** Nagorek, Guadalupek, Arratek, Helenek, Inmak, Leirek eta Anek primeran jokatu zuten.



**Urko Arregi**
Errekalde Herri Eskola

Lagunekin berriketan harrapatu genuen Urko, eta mozorrotuko al den galdetu genion: "Martitzenean kalderero eguna ospatuko dugu eskolan, guztiok mozorrotuko gara. Asko gustatzen zait; gainera, jai dugu arratsaldean".



**Imanol Elgarresta**
Errekalde Herri Eskola

Saskibaloi partiduan topatu genuen Imanol. Eskola kirolean oso ondo pasatzen duela azaldu eta gero aratusteen gainean aritu ginen. "Eskolan dantza bat egingo dugu martitzenean. Asko gustatzen zait egun hori".



**Iosu Biain**
Elkarhezi

Taldekideei begira ikusi genuen Iosu zapatuan eta tartetxo batean gurekin aritu zen berriketan. Bera ere mozorrotuko dela azaldu zigun: "Martitzenean ospatuko ditugu aratusteak eskolan. Amalurrez mozorrotuko gara".



**Leire Biain eta Arrate Kerejeta**
Haritza taldea

Partiduan sartutako golak apuntatzen aurkitu genituen bi neska hauek. Batek *hippi* mozorrotu zela azaldu zigun eta bestea Amalurrez mozorrotuko da martitzenean. "Asko gustatzen zaigu mozorrotzea, gainera dantza egiten dugu".



**Nagore Uribarri eta Leire Zabarte**
Pagoak taldea

Eskubaloian jolasteko prest topatu genituen Nagore eta Leire. "Errekalden kaldereroz jantziko gara martitzenean: panderoak eta sartainak aterako ditugu. Txantxiku ikastolan peluka luze batekin hippi mozorrotu ginen egubakoitzean".



**Olatz Manuel**
> Irakaslea



Eskiatzaile bat elurretan erortzen. Komeni da lesioak saihesteko, prestaketa saioak egitea eskiatzen hasi aurretik. ARIZMENDI

**ESKIA** > PRESTAKETA

# Eskia eta lesioak

Orain arte eskiaz gozatzeko hainbat aukera erakutsi badizuegu ere, gaurkoan eskiaren beste aldea azaldu nahi dizuegu, eskiaren alde txarrena: lesioena. Eskiaren zaletasunak gorakada handia izan du azken urteotan eta kirol hori praktikatzen dutenen kopurua ere nabarmen igo da. Aisialdiko kirol ekintzak kontuan hartzen baditugu, eta ez lehiaketakoak, eski alpinoa, trabesiako eskia, fondokoa eta snowboarda dira gaur egun gehien praktikatzen diren neguko kirolak. Horietan, ondorengo hauek dira eman ohi diren lesioak.

**BEHE ATALEAN**

**Lotailuetako lesioak**. Belauna: Barneko lotailua eta gurutzatua dira lesio ohikoenak. Lesio horiek, batik bat, eski alpinoa praktikatzen duten kirolariengan ematen dira. Bere errehabilitazioa lesioaren larritasunaren araberakoa izango da –kasu larrienek ebakuntza beharko dute–.

Orkatila: Orkatilan ere bihurdurak eman daitezke; lesio mota hori ohikoagoa da snowboard edo fondoko eskia praktikatzen dutenengan, erabiltzen diren botak ez direlako hain zurrunak eta zertxobait baxuagoak direlako.

**Hausturak**: Gehienetan, haustura itxiak ematen diren arren, noizbehinka fisurak eta haustura irekiak ere egin daitezke. Horiek tibia, perone eta femur hezurretan –traumatismo handietan– eman ohi dira.

**GOI ATALEAN**

**Erpurua**: Eskuaren gainean erortzearen ondorioa izaten da lesio hau. Bastoia eskuetan dugula eta ukabila itxita jaustean gertatu ohi da, bastoiaren zintak erpuruaren desbideratzea eragin dezakeelako.

**Sorbaldaren luxazioa**. Hausturak: Erradio eta kubitua, batez ere, snowboarda praktikatzen duten kirolariek jasango dute.

Lepauztaia: sorbaldaren gainean jausten garenean gertatu ohi da lesio hau.

Eskuko hezurtxoak (metakarpianoak).

**BESTE BATZUK**

Traumatismoak: Larrienak buruko eta bizkarrezurreko –jeneralean torax-lunbar inguruko ornoetan– golpe bortitzak dira lesio hauek.

## MIN HARTZEKO ARRAZOIAK ETA HORIEK SAIHESTEKO AHOLKUAK

**> PRESTAKUNTZA FISIKO ESKASA**
Eskiatzaile askorentzat eskia urte osoan egiten duten kirol bakarra da. Eta, eski denboraldia hasten denean euren gorputza ez da prest egoten eskiak dituen exijentzia fisikoak betetzeko. Eski denboraldia hasi aurretik ariketa fisikoa egitea garrantzitsua da: indar ariketak, lan aerobikoa... (ikus aurreko aleko entrenamendu plana).

**> ESPERIENTZIA FALTA EDO TEKNIKA EZ MENDERATZEA**
Lesioen kopuru handi bat eskiaren ikaskuntzako lehenengo zazpi egunetan ematen da. Beraz, eskiatzeko lehenengo egunetan monitore espezializatu batekin ikastea gomendatzen dizuegu.

**> GEHIEGIZKO KONFIANTZA**
Gure gorputzak ahal duena baino gehiago egin dezakeela pentsatzeak lesioren bat eragin diezaguke. Zentzuz jokatu, beste eskiatzaileak errespetatu, arretaz eskiatu...

**> BEROKETA FALTA**
Gogoratu gorputza ariketa fisikorako prestatu beharra daukagula. Eskiatu aurretik, 15-20 minutuko beroketa egin.

**> GEHIEGIZKO NEKEA**
Egun osoa eskiatzen pasatu ondoren, gure gorputzak nekea sumatzen du. Neke horren eraginez, giharrek ez dute egunaren hasierako gaitasun bera eta edozein ezusteren aurrean ere erreakzionatzea gehiago kostatuko zaie. Oso garrantzitsuak dira atsedenak, noizbehinka ura edateko eta zerbait jateko geldiuneak egitea. Nekea sumatzean eskiatzeari utzi behar zaio.

**> ELURRAREN EGOERA**
Izotzaren ondorioz, elurra gogortu egiten da eta traumatismoak izateko arriskua areagotu egiten da. Bestalde, udaberriko elurra badago, azpiko elur geruza oso gogor egongo da eta horren gaineko geruzak ez du trinkotasun handirik izango. Horrek belauneko bihurdurak eragin ditzake.

**> ESKI MATERIALA**
Materialak egokia behar du, bestela lesio arriskua eragin dezake-eta. Erabili aurretik, materiala errebisatu, neurri egokiak erabili, finkatzeak neurtu...

## Lesioen estatistikak

> 2-3 lesio ematen dira 1.000 eskiatzaileko eta eguneko.
> Behe ataleko lesioak % 74 dira eta goi atalekoak % 26.
> Goi ataleko lesioak 3 aldiz gehiago ematen dira snowboardean, eski alpinoan baino.
> 70eko hamarkadan, eskiatzaileen lesiorik ohikoena behe ataleko hezurren haustura zen; gaur, berriz, belauneko lotailuetakoak, materialaren hobekuntzagatik.
> Esperientziarik gabeko eskiatzaileek, gihardura landugabea daukatenek eta emakumeek -anatomikoki belauneko ezberdintasunagatik- lesionatzeko arrisku handiagoa dute.
> Lesio guztietatik % 51 bihurdurak izaten dira, % 14 hausturak, % 10 luxazioak eta % 25 beste batzuk.
> Belauneko lesioetatik % 70 barneko lotailuarenak izaten dira.
> Lesioetatik % 48 hasi berriengan ematen dira, % 21 maila ertaineko eskiatzaileengan eta % 31 maila ona duten eskiatzaileengan.

## OHIKO LESIOAK




Goiko irudian ikus daiteke zeintzuk diren ohiko lesioak. ARIZMENDI

## Datorren astean...

Eski denboraldi osasuntsua. | Eskia eta bere arriskuak. | Eskirako prestakuntza fisikoa eta entrenamenduak. | Eskiko lesioak eta berauek errekuperazioa. | **Pistaz kanpoko eskia.** | Mendiko eskia.

Arizmendi ikastola PRO 2.0 PROFESIONALAK
Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa



**> NANCHO NOVO**
Aktore ezaguna Amaia Udal Antzokian egon zen domekan; elkarrizketa egin diogu > 30



**> 'MAIXUAK'**
Okina, Laskurain, Leturia eta Otaño margolari beteranoak omendu zituzten barikuan > 30



**> BAKARLARIAK**
Mery May, Pedro Javier Hermosilla eta Pettik kontzertua egin zuten zapatuan Arrasaten > 31



Dantza saioak txalo beroak jaso zituen. JOSETXO ARANTZABAL



Orkestrako hari taldea JOSETXO ARANTZABAL

**BERGARA** > ORKESTRA ETA MUSIKA BANADAREN ARATUSTEETAKO KONTZERTUA

# Frontoia bete eta Kubara bidaia orkestrak eta bandak gidatuta

**KUBA**
La Habanako txoko bat irudikatu zuten pilotalekuan

**JENDETZA**
Harmailak eta bigarren solairua goraino bete zituzten zaleek

**DANTZA**
Bidaia borobiltzeko, Arrasateko dantza latinokoak egon ziren

JON BEREZIBAR > BERGARA

Kubatar kutsu eta puru usaineko gaua izan zuten egubakoitzean bergararrek. Musika eta dantzarekin zapatuko Aratuste egunaren sarrera izan zen egubakoitzekoa. Izan ere, gau tropikal baterako gogoz zeuden antza bergararrak eta txarteldegia ireki aurretik, ilara luzea zegoen pilotaleku parean. Banda eta orkestraren urteko hitzordurik politenetakoa da Aratusteetakoa. Aurten Karibera egin dute musikariek gonbidapen musikala, "2x1"-eko eskaintzarekin gainera. Iraultzailez jantzita, buruko tropikalez edo militar modura agertu ziren musikariak. Giro horrekin, salsa eta boleroak izan ziren nagusi eta banda eta orkestrak zenbait pieza gozagarri jo zituzten. Sparkeren *Concert prelude*-rekin hasi ziren, goxo eta lasai; eta lehen zatia zarzuela aukeraketa batekin borobildu zuten Bandakoek. Txalo beroekin Bandakoak agurtu eta berotasun berdinarekin egin zieten ongietorria Orkestrakoei. Matamorosen eta Saint Saënsen pieza bana jo zituen orkestrak maisuki.

**PURU USAINA**

Frontoietan ezin da erre, baina egubakoitzean ez zen galarazpenik egon habanoen ke usaina inguru guztian zabaltzeko. Ikuskizunaren bigarren zatiak kubatar kutsu eta usain guztia izan zuen. Antzerki txikia egin zuten musikariek eta aurten Pepa, kubatar prostituta ezaguna, izan da protagonista. Eszenografia txukuna ere prestatu zuten La Habanako txoko eder baten itxuran, eta dantza eta komerien artean gerria mugitu eta erritmoarekin amaitu zen ikuskizuna. Gerriak mugiarazteaz gainera, Arrasateko dantza latinoen taldeek esku hartu zuen. Giro tropikala Bergaran, gau batez bada ere.

## Guztiek "latinoekin" dantzan amaitu zuten

Gonbidatu bereziak izan dituzte aurten Banda eta Orkestrakoek Aratusteetako kontzertuan. Kuban girotutako ikuskizuna izanda, musika bai, baina dantzak ezin zuen huts egin inondik inora. Gerriak ezin hobeto mugitu eta eserlekuetan geldi zeudenei inbidia ematen Arrasateko dantza latinoen taldekoek jardun zuten. Bikoteka eta borobilean dantzan, koreografia alai eta arina egin zuten. Txalo zaparradarekin amaitu zuten dantzariek, eta arrakasta ikusita errepikatu egin zuten. Horrekin nahikoa ez eta saioa borobiltzeko, binaka dantzan amaitu zuten. Bai dantza zein antzerkia egin zuten musikariek ere.

**Txomin Larrañaga** > Tronpeta jotzailea

## "Oso errepertorio polita izan du egubakoitzeko kontzertuak"

J. B. > BERGARA

**Orkestrako kiderik gazteena dugu Txomin Larrañaga baina adinak ez ditu kentzen disfrutatzeko gogoak. Mozorro zale eta musika zale, egubakoitzekoa taldeko gazteenak nola bizi izan zuen kontatu digu.**



J.B.

**Kontzertu berezia egubakoitzekoa ezta?**

Bai, beti izaten da. Aratusteak dira; eta jendea gogoz etortzen da. Guretzat ere berezia eta polita izaten da. Jende asko etortzen da urtero, egubakoitzean moduan. Emozio handiz bizi izaten dugu guk ere.

**Jo bai, baina antzerkia ere egiten duzue. Zu ez zara animatzen?**

Ba aurten ez didate eskatu. Galdetuz gero agian animatuko nintzateke; zeinek daki!

**Taldeko gazteena izanda, ondo hartu zaituzte nagusiagoek?**

Bai. Arraroa da batzutan gazteena izatea, baina neu gustura nabil. Hurrengo gazteenak hiru bat urte zaharragoak dira.

**Orkestran nahiko pieza klasikoak jo dituzue. Gauza modernoagoak ez dituzu gurago?**

Denetarik jo ohi dugu eta niri ere denetarik gustatzen zait. Gertatzen da batzutan piezaren bat agian ez gustatzea, baina egubakoitzekoa, adibidez, oso errepertorio ona izan zen.

Nancho Novo > Aktorea

# "Antzerkia da bizitzan serio hartzen dudan gauza bakarrenetarikoa"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

**Nancho Novo aktore ezaguna Arrasateko Amaia Udal Antzokian izan zen atzo, domeka, *Entre flores y cerdos* ikuskizuna antzezten. Agertokira igo aurretik izan ginen berarekin. Galiziarrak eskarmentu handia dauka zineman eta antzerkian.**

**Ideia ona izan zen Maloficio konpainia sortzea edo badira antzerkia baino lanbide hobeak munduan?**

Izenak berak hala esaten du. Gaur egun antzerkian aritzea suizidioa da, baina batzuk gaixo gaude. Ez dakit lanbide onena den, baina nik gehien maite dudana da. Maloficiok 15 bat urte bete ditu dagoeneko, eta hala moduz jarraitzen dugu.

***Cyborg* izeneko antzezlana ere baduzu. Noiz zaletu zinen zientzia fikzioan?**

Txikitatik naiz zientzia fikzioaren fanatikoa. Hala ere, nik arlo horretako literatura maite dut, eta ez horrenbeste filmak. Literatura horrek sakonera handia dauka, gero filmetan galdu egiten duena. Askotan akziozko edo beldurreko istorioak bihurtzen dira eta pena bat da. *Cyborg* 1984an idatzi nuen eta 1985ean zirkuitu alternatiboan estreinatu nuen. Idatzi nuen lehenengo antzezlana izan zen, eta seguruenik gazteleraz idatzitako arlo horretako lehenengo antzezlana da.

**"Gaur egun antzerkian aritzea suizidioa da, baina batzuk gaixo gaude"**

**"Bizitzari eta ahalik eta hobeen pasatzeari diot nik adikzioa, nahiz eta lanean gogorra naizen"**



Nancho Novo Amaia Udal Antzokian izan zen atzo, domeka. JON BEREZIBAR

**Zer aurki dezakegu *Entre flores y cerdos* antzezlanean?**

Nancho egoera puruan edo agian lizunean. Etxeko egongelan lagunekin egongo banintz moduan kontatzen dudan bakarrizketa da. Abiapuntua maitasuna da eta hainbat gaien gainean aritzen naiz: poesia, indarkeria, gorrotoa, sexua... Hori guztia umorearekin, jakina.

**Musikak ere protagonismo handia dauka, ezta?**

Bai, hasieran piano jotzaile batekin tabernaz taberna egiten nuen; baina, gerora, idatziak gehitzen joan nintzen eta antzokietarako prestatu nuen. Nik konposatutako kantuak dira, baina pianoarekin eta gitarra akustikoarekin jotzen ditugu. Musikak testuak laguntzen ditu.

**Bestalde, aspalditik ez dituzu gozoak jaten, rock taldearen ondorioz?...**

(Barre). Bai, Castigados sin postre taldearekin jarraitzen dut, nahiz eta kontzertu gutxi egiten ditugun. Martxoaren 25ean Madrilgo Gruta 77 aretoan izango gara. Rock-and-roll gordina egiten dugu. Kontratatu nahi gaituzu? Euskal Herrira gustura joango ginateke.

**Lanari mendekotasuna diozu?**

Ez. Bizitzari eta ahalik eta ondoen pasatzeari diot mendekotasunari. Sorkuntzak izugarri betetzen nau. Ni, berez, kaos bat naiz, baina lanerako oso gogorra naiz. Antzerkia da serio hartzen dudan gauza bakarrenetakoa.

**MARGOLARIAK** > ARTISTA BELAUNDI BATEKO 'MAISUAK' AROZTEGI ARETOAN

# Mirespen omenaldia egin zieten Bergarako 'maisuei'

Migel Okina, Jose Antonio Laskurain, Patxi Leturia eta Ricardo Otaño margolariak omendu zituen Beart elkarteak egubakoitzean

JON BEREZIBAR > BERGARA

Hunkituta eta harriduraz, baina batez ere eskertuta jaso zuten egubakoitzean Bergarako maisuek omenaldia. Ricardo Otaño, Jose Antonio Laskurain, Migel Okina eta Patxi Leturia ziren omenduak baina azkenak, gaixo zegoela-eta, ezin izan zuen ekitaldira joan. Laurek gainditzen dituzte 80 urteak baina oraindik ere eskuak ez die huts egiten eguneroo pintzela hartzen jarraitzeko. "Ez genuen pentsatzen hainbeste izango zenik" dio Laskurainek plaka oroigarria eskuetan eta hunkituta. Bai berak zein Okinak gogoan izan zuten omenaldian Ximon Arrieta aitzindaria, Bergarako margolari belaunaldien sustatzaile eta egubakoitzeko protagonisten maisu izan zena. Otañok eurena zein belaunaldi berria izan zituen gogoan Bergarako margolaritzari buruz galde egiterakoan: "Promesa gazteak badaude eta horrek asko esan gura du". Hirurek gauza bat argi dute eta hori da "pintatzeko asko margotu behar" dela.

**MAISUEN BELAUNALDIA**

Oroigarriarekin eta euren lanekin osatutako erakusketarekin omendu dituzte artista beteranoak. Beart elkarteak antolatu du Aroztegi aretoan martxoaren 8ra arte ikus daitekeen mostra, 49 obrarekin. *Maisuak*, laburki eta mirespenez, bataiatu dute erakusketa eta lauen ibilbidea jasotzen da erakusketan.



Laskurain, Okina eta Otaño oroigarriekin. J. B.

**NON:** Arrasateko 3.60 aretoan.
**EGUNA:** Egubakoitza, otsailak 20.
**ZENBAT JENDE:** 50 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Lau bat ordu.




Ezkerretik eskumara Pedro Javier Hermosilla, Ines antolatzailea, Mery May eta Petti agertoki gainean. JOSETXO ARANTZABAL



Hermosilla abesten. J.A.

**KRONIKA** > MERY MAY, PEDRO JAVIER HERMOSILLA ETA PETTI

# Xamurtasunetik basakeriara bidea

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Ezohiko kontzertua egin zuten egubakoitzean Arrasateko 3.60 aretoan. Ezohikoa, Euskal Herrian oraindik bakarlariak entzuteko aukera egoten ez delako; eta bereziagoa oraindik kontzertu berean halako hiru musikari batu zituztelako.

Hala ere, agertokira igotako musikarien eskaintzek ez zuten zerikusi handirik euren artean. Arrasateko Mery May izan zen lehena. 19 urteko gazteak dagoeneko erakutsi du baduela zerbait berezia; Danbakan ere zur eta lur utzi zituen debagoiendar asko. AEBetako folk eta rock-and-roll klasikoetatik, handietatik, abiatuta gai da ingelesez abestutako kantu hunkigarriak idazteko eta plazaratzeko. Jakina, Neil Young gogora ekarri zigun bi piezatan eta Radiohead ere bertsioneatu zuen. Hasieran ikusleak hotz zeuden arren, emanaldiak aurrera egin ahala, *harrapatu* egin zituen.

**HERMOSILLA, KATALUNIATIK**

Jarraian Pedro Javier Hermosillak hartu zuen lekukoa. Kataluniako musikari horrek izen handia dauka Espainian, baina Euskal Herrian ezezagun samarra da. Emanaldia nahiko modu esperimentalean hasi zuen, aurre-grabatuekin, bi mikrofonorekin eta hainbat efekturekin, giro iluna lortuz. Gerora, baina, flamenkoa, kantu erromantikoak eta Antonio Orozcoren kutsua zeukaten piezak uztartu zituen. Hermosillak hiru disko ditu kalean eta iaz Bob Dylanekin batera aritzeko aukera izan zuen.

**PETTI, ERALDATUTA**

Hermosillaren kontzertuak luze jo zuen, eta aretoan ikusle gutxi baziren ere, askok Petti ikusi eta entzun gura zuten. Azkenean, 02:00ak aldera, Berako musikaria mikrofono parean jarri ahala, eraldatu egin zen. Bere kantu ezagunenak jotzen hasi zen, bata besteari lotuz, eta berak abesten duen moduan *Argia heldu* zen; are gehiago, *Xoria kantari* jartzeaz gain, piztia esnatu egin zuen: bluesa, Tom Waits-en izpiritua, folk garratza, Led Zeppelinen oihartzuna... eta nola ez, Neil Young-en *People rocking in a free world,* askoren laguntzarekin. Maila goi-goian utzi zuen, basati aritu zen.

Euskal Herriak behar duen
ALDAKETA
BOZKATU
EZKER
ABERTZALEA
URREZKO BOTOAK

# "Zuzeneko taldea gara eta ondo pasatzen dugu taula gainean"

The 5 Twisters arrasatearrek bigarren diskoa kaleratu dute, 'Pleasures' izenekoa; Azpeitiko Lobo diskoetxean grabatu dute

Garage eta rock-and-roll estiloak jorratzen dituzte gehienbat, baina askotariko estiloetako ukituak dituztela diote taldeko kideek



Argazkian, Jago, Beñat, Jokin, Goro eta Joseba.

THE 5 TWISTERS

**MIREIA BIKUÑA**> ARRASATE

**Arrasateko The 5 Twisters taldeak bigarren diskoa kaleratu du. Jokinek, Beñatek, Gorok, Josebak eta Jagobak osatzen dute taldea. Jokinekin egin dugu berba.**

**Bigarren diskoa kaleratu duzue, *Pleasures* izenekoa.**

Azpeitiko Lobo diskoetxean grabatu genuen Josu Zubizarretarekin, eta Arrasateko Shot! diskoetxean nahastu genuen. Grabazioa orain dela hilabete batzuk egin genuen eta abestiei ahalik eta indar handiena ateratzen saiatu ginen. Oso gustura gaude emaitzarekin.

**Ze ezberdintasun daude bi diskoen artean?**

Bigarrenean kantu landuagoak daude. Gainera, musikarekin eta hitzekin gehiago transmititzen ahalegindu gara. Bestalde, azken bi urteotan asko ikasi dugu eta hori diskoan islatu egiten dela uste dugu. Musika askoz gehiago ezagutu dugu eta ordu asko eman ditugu konposatzen.

**Nork idatzi ditu letrak?**

Letra gehienak Jagoren eta bion artean idatzi ditugu; dena den, batzuk guztion artean moldatzen ditugu, denok identifikatuta sentitzeko asmoz. Hamar kantu ditu diskoak eta askotariko estiloak landu ditugu, taldeko kide bakoitzak influentzia ezberdinak ditu-eta.

**Euskaraz abesten duzue?**

Euskaraz abesti bat egitea erabaki genuen, hizkuntzak ez duela axola esateko. Garrantzitsuena esaten duguna da eta ez zein hizkuntzatan abesten dugun. Hemen aho asko daude eta ezer jakin gabe hitz egiten dute.

**Diskoa ze tokitan dago salgai?**

Oraingoz, Arrasateko eta Aretxabaletako taberna batzuetan dago. Hain justu ere, Dat, Iluntz, Ekaitz, Basati eta Urbaltz tabernetan.

Pixkanaka, Euskal Herrian zehar banatu nahi dugu diskoa, baina gaur egun rock-and-rolla egiten dugun talde gazteendako oso zaila da banaketa ona lortzea, guk eroan behar dugu-eta. Adibidez, punk edo oi! estiloa egiten dutenek erraztasun handiagoak dituzte. Beraz, hurrengo diskoan street-punka egin beharko dugu gauzak errazteko...

**Zuzenekoetan *arraina uretan moduan* ikusten zaituztegu, inoiz baino erosoago. Hala da?**

Bai, hala da. Zuzeneko taldea gara eta asko dibertitzen gara agertokian. Azken urteotan zuzeneko batzuk eman ditugu eta pixkanaka erosoago sentitzen gara. Astean zehar pilatutako guztia ateratzeko balio digute kontzertuek. Martxoaren 6an, 19:00etan, Arrasateko Etxoste tabernan kontzertua egingo dugu. Diskoa ezagutu gura duten guztiak daude gonbidatuta.

**Hasieran beste talde batzuen bertsioak egiten zenituzten. Orain?**

Orain, gure kantuak konposatzen denbora gehiago ematen dugu bertsioak egiten baino. Dena den, kontzertuetan gustuko ditugun taldeetako kantuen bertsioak egiten ditugu, baina lehentasuna gure abestiek dute.

**Talde paraleloak ere badituzue. Ideia sorkuntza handia daukazue?**

Baietz esango genuke. Los Galerna talde berria sortu dugu Jagok eta biok beste lagun batzuekin. Surf instrumentala maitatzeak eroan gaitu estilo hori jorratzera. Gorok ere beste talde batean dihardu: hain zuzen ere, Jukebox taldean. Eta Beñat eta Joseba taldekideek beste proiektu berri bat sortzen dihardute.

**Garage musika eta rock-and-rolla ez dira aspaldiko musika estiloak? Errebindikatu egin behar dira egungo entzuleek ezagutzeko?**

Musika estilo guztiak asmatuta daude, eta guk gustuko dugun musika jotzen dugu. Orain ez gara errebindikaziorik egiten hasiko.





## Pieza bateko kantu rockeroen dotoretasuna

Arrasaten talde gutxi daude, oraindik, rock-and-rolla lantzen. Horietako bat da The 5 Twisters. Hasieran ideia onak zituzten arren, taldeari eta batez ere emaitzari gorpuzkera falta zitzaien, egiten zuten horretan gehiago sinistea, hain zuzen ere.

Bigarren lan honetan, baina, igartzen da taldea hazi egin dela, instrumentuak hobeto menderatzen dituztela eta egin gura dutenetik hurbilago daudela. Pasa den Danbakan argi eta garbi erakutsi zuten hori. Hala, indarra, distira eta emaitza borobila lortu dute. *Pleasures* izeneko lana gozamena da, nahiz eta ezer ez deskubritu (oso-oso gutxitan gertatzen da hori). Horren ordez, baina, 70eko hamarkadako taldeen kantuek zuten *hit!* izaera harrapatzen jakin dute. Bestalde, iraganeko garage-a neurri baten alboratu dute, eta tarteka punkrocketik hurbilago daude honakoan.

**Iker Barandiaran**

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Altsasu.** 90m2 : 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, terraza, trastelekua eta garajea. Jantzia. Gas naturaleko galdara aldatu berria. Interesatuek hots egin 667 44 78 71 edo 679 24 18 76 telefonoetara.

**Antzuola.** 88 metro koadroko etxebizitza jantzia. Hiru logela, egongela, bi komun eta sukaldea. Garaje irekia, trastelekuarekin. Hirugarren solairua, igogailuarekin. Aitziber. Deitu 697 78 07 29 telefonora.

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. 659 64 67 38.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Erguin kalean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. Oso eguzkitsua. Deitu 606 86 71 97 telefono zenbakira.

**Etxarri Aranatz.** Pisu berria. 2 logela, 2 bainugela, trastelekua, garajea eta bista ezin hobeak. Interesatuek 687 73 67 77 telefonora hots egin.

**Etxarri Aranatz.** 2008koa. Igogailuarekin. 75 metro koadro. Logela eta egongela Beriain aldeko begiratokiarekin. Bi logela eta bi komun ditu. Trastelekua eta garajea etxe azpian. Interesatuek hots egin 688 64 74 04 zenbakira.

**Etxarri Aranatz.** Pisua salgai. Sukaldea, sukalondo edo errekozina, egongela, 3 logela eta 2 bainugela oso. Lau argiko etxea, erabat berrituta. Interesatuek hots egin 630 15 99 54 telefonora.

**Iruñea.** Txantrea auzoan eraberritutako pisua saltzeko premia. Jantzita dago eta 3 gela ditu. Prezio negoziagarria. Hots egin 676 92 71 65 telefonora.

**Mutriku.** 61 metro koadroko pisu berritua, altzariz jantzia, gas naturalarekin, garaje aukerarekin. 32.000.000 pezeta negoziagarriak. Deitu 626 83 33 33 telefono zenbakira.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Jose Luis Iñarra kalean. Deitu 639 96 01 21 telefonora.

**Benidorm.** Apartamentua ematen da errentan. Bi logelakoa. Levanteko hondartzako lehenengo lerroan. 630 41 84 65

**Etxarri Aranatz.** Pisua alokatzen da. Interesatuek deitu 607 31 76 67 telefonora.

**Lasarte-Orian.** Tamaina handikoa, auto familiarra edo furgonetarako aproposa. Deitu 943 37 61 15 telefono zenbakira.

**Lasarte-Orian.** Harremanatarako zenbakia: 600 61 20 85

**Lasarte-Orian.** Eraikuntza berria, 30 metroko terraza eta bista latzak. 2 logela, egongela-komedorea bat eginda, sukaldea trasteroarekin. Eguzkitsua: etxeko gela guztiek terrazarako irteera dute. 94 656 33 45. Arratsaldez, Axier.

**Lekeitio.** Errentan eman. Lekeition. Eguzki Begira urbanizazioan 4 logelako duplexa. Bista ikusgarriak itsasora. Frontoi eta igerileku komunitarioak, aparkaleku partzela. Prezioa 750 € tel. 688 63 36 21

**Oñati.** 86 metro koadroko etxebizitza errentan Euskadiko etorbidean. Hiru logela, sukaldea, komuna, egongela eta garage plazarekin. Igogailu gabe. Deitu 665 74 68 24 telefonora.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan erdigunean. Presazkoa da. 666 75 73 21

**Bergara.** Etxebizitza bila nabil nire bikotekidearekin batera. Iris. 610 91 33 40

**Bergara.** Familia batek errentan hartuko luke etxebizitza Bergaran, Antzuolan edo Oñatin. 645 72 92 87

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Deitu 618 93 59 29 telefonora.

**Bergara.** Erdialdean etxea errentan hartuko nuke. Deitu 669 64 76 28 telefonora.

**Bergara.** Baserria errentan hartuko nuke Bergaran edo inguruan. 665 70 21 92

**Bergara** edo inguruan etxebizitza txiki bat alokatuko nuke. 607 31 85 60

**Debagoiena.** Apartamentua hartuko nuke errentan Debagoieneko edozein herritan. Deitu 663 72 78 23 zenbakira.

**Debagoiena.** Etxea errentan hartu nahi nuke, pertsona batentzako. Interesa duenak dei dezala 653 70 84 09 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Etxe txikia hartuko nuke Arrasate, Eskoriatza, bergara edo Aretxabaletan. Deitu 626 82 16 20 edo 646 56 62 78 telefono zenbakira.

**Donostialdea.** Hernani edo inguruan logela hartuko nuke errentan. Martxotik uztailera bitartean. Deitu 652 71 52 50 telefono zenbakira.

### 105. ETXEAK OSATU

**Altsasu.** Gela alokatzen da. Sukaldea erabiltzeko eskubidea izanen da. Deitu 606 00 23 40 telefonora.

**Antzuola.** Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Deitu 607 59 18 49 zenbakira.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan, sukalde eta egongelarako eskubidearekin. Pertsona heldua bada, hobeto. Deitu 666 75 73 21 zenbakira.

**Arrasate.** Pertsona arduratsuak logela behar du errentan. Hilabete honetan bertan sartzeko. 666 21 88 95.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. 200 euro (ura, kalefakzioa eta argia) hilero. Unibertsitatetik gertu. Deiut 652 73 46 19 zenbakira.

**Bergara.** Bolu auzoan pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. 670 85 86 68.

**Donostia.** Gela eskaintzen da 65 urteko emakume bati konpainia egitearen truke. Eskaintza aproposa ikasleentzat. Ez da etxeko lanik egin behar, soilik konpainia. Garrantzitsua arratsaldean eta gauean etxean egotea. E-mailez kontaktatu. Mila esker.

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**
**www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.
- LOKALA SALDU/ALOKATU.
- GARAJEA SALDU/ALOKATU.
- MOTORRA SALDU.

**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 23 € (BEZ BARNE).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 31 € (BEZ BARNE).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALGAI

**Errenteria.** Garaje itxia salgai Errenterian. Bi autorentzako lekua du, eta kanpoaldera ematen duen leihoa. Interesatuek deitu telefono hauetara: 943 39 24 74 edo 667 42 894.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garaje itxia errentan ematen da Espoloian. Deitu 645 00 78 19 telefonora.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALGAI

**Salgai edo errentan.** 100 metro koadroko lokala, gaur egun janari denda da, baina edozein jarduerarako balio du. Gehi 110 metro koadroko biltegia. 94 624 31 84 eta 94 684 19 58.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Donostia.** Etxeko lanak egiteko eta urtebeteko ume bat zaintzeko 35 urtetik gorako emakume bat behar dugu. Euskalduna izan eta Donostialdean bizi behar du. Ordutegia eta lan baldintzak elkarrekin zehaztu beharko genituzke. Deitu 639 10 45 71 telefonora.

**Villabona.** Neska edo emakume euskalduna behar dugu, Villabona aldean haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Autoa beharrezkoa da. 678 87 50 81

### 402. ESKAERAK

**Antzuola.** Arropen konponketak egiten ditut. 616 45 00 20.

**Arrasate edo Bergara.** Mutila gertu edozein lan egiteko. Nagusiak zaintzen esperientzia daukat. 685 70 76 25.

**Arrasate edo Bergara.** Nagusiak gauez edo aste bukaeretan zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia eta erreferentziaduna. Paperak ditut. 686 52 15 98.

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Etxerik etxe ile apaintzaile lanak egiten ditut. Deitu 650 59 93 91 telefonora.

**Arrasate.** Egun erdiz, osoz edo orduka lan egiteko gertu nago. 666 75 73 21.

**Arrasate.** Emakume euskalduna lanerako gertu. Deitu 659 82 75 18 telefonora.

**Arrasate.** Emakumea gertu haurrak zaintzeko. 666 12 52 80.

**Arrasate.** Neska euskalduna gertu etxeak garbitu edo joste lanak egiteko. 678 66 59 54 edo 943 79 12 00.

**Arrasate.** Neska gertu etxeko lanak egin edo ume zein nagusiak zaintzeko. 618 00 08 28.

**Arrasate.** Neska gertu umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 618 00 08 28.

**Debagoiena.** 44 urteko emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izateko prest nago. Deitu 606 64 16 09 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Altzariak muntatzen, denetariko konponketak egiten edo bestelako edozein lanetan aritzeko prest. Deitu 695 78 91 04 edo 695 78 41 14 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Edozein desbrozadora-lan mota egiteko gertu. Euskalduna. Esperientziaduna. 658 73 79 02.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan lo egiten. 628 40 58 27.

**Debagoiena.** Emakume euskalduna gertu edozein lan egiteko. 667 94 07 25.

**Debagoiena.** Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Paperak eguneratuta dauzkat. 686 99 59 41.

**Debagoiena.** Emakumea gertu edozein lan egiteko. Deitu 649 70 51 74 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu orduka lan egiteko. 5 ordu orduko. Deitu 669 53 02 92 edo 943 79 70 59 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin eta nagusiak egunez edo gauez zainduko nituzke. Esperientzia. Erreferentziaduna. Paperak ditut. 680 87 38 66.

**Debagoiena.** Garbiketan edo lorezain lan egiteko gertu nago, bailara osoan. Peoi moduan. Alex. 647 19 36 95.

**Debagoiena.** Gizona gertu edozein lan egiteko. 645 72 92 87.

**Debagoiena.** Igeltsero ikasketak eginda dituen gizonezkoa gertu edozein lan egiteko. 680 91 16 83.

**Debagoiena.** Ile apaintzaile lanetarako gertu nago. Deitu 639 00 35 57 zenbakira.

**Debagoiena.** Mutila edozein lan egiteko gertu. 628 93 79 39.

**Debagoiena.** Mutila edozein lan egiteko gertu. 630 61 29 30.

**Debagoiena.** Mutila gertu baserriko lanak egiteko, ardiak edo behiak zaintzen. 663 60 51 64.

**Debagoiena.** Mutila gertu tabernari edo bestelako lanetan aritzeko: garbiketan, baserrian... 634 84 11 72.

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari edo garbiketa lanetan jarduteko. 634 45 28 77.

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari lanetarako. Egunean bost orduz. Ordutegi malgua. Deitu 943 71 21 15 edo 679 58 41 92 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. 685 70 76 25.

**Debagoiena.** Neska euskalduna prest edozein lan egiteko. Deitu 647 87 28 31 telefonora.

**Debagoiena.** Neska gertu umeak edo adinekoak zaintzen edo etxeko lanetan jarduteko. Deitu 667 90 38 56 zenbakira.

**Debagoiena.** Neska gertu umeak edo adinekoak zaintzen edo garbiketan lan egiteko. Deitu 699 63 12 02 telefonora.

**Debagoiena.** Zerbitzaria lanerako gertu. Zortzi urteko esperientzia dut. 657 02 15 96.

**Gipuzkoa.** Garbiketa, gizarte laguntzaile edota igeltserotza lanak egingo nituzke. Legezko paperak dauzkat. Rolando Melgar. 672 25 92 18.

**Oñati.** Neska euskalduna gertu tabernak edo elkarteak garbitzeko edota sukaldean lan egiteko. Esperientzia daukat. 943 08 18 13 edo 635 70 07 92.

**Oñati.** Neska euskalduna gertu tabernak edo elkarteak garbitzeko, edota sukalde batean lana egiteko. Esperientzia daukat. Deitu 943 08 18 13 edo 635 70 07 92 telefono zenbakira.

---

inmobiliaria Etxebila
Felipe IV etorbidea 4. DONOSTIA
Tel.: 943 44 61 66

**ALOKAIRUAN**

**LOIOLAKO ERRIBERA** 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. 950 €
**LEZO** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berria. Aparkalekua. 700 €
**SAN PEDRO** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Ikuspegi ederrak. Polita. 750 €
**INTXAURRONDO** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 750 €
**MARTUTENE** 2 edo 3 logela. 2 bainugela. Igogailua. 650 € eta 790 €

**SALMENTAN**

**ALTZA** logela, egongela, sukaldea, bainugela. Lorategia. Sartzeko moduan. 24.000.000
**ASTIGARRAGA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kalera begira. Ikuspegi ederrak 31.300.000
**AMARA** hasieran. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. 39.990.000
**AMARA** 70 m$^2$. Igogailua. Terraza. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 46.500.000
**AMARA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. Trastelekua. 40.990.000
**AMARA** atikoa. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. 40.990.000
**AMARA** Madrid hiribidea. 80 m$^2$. Guztiz berritua. Terraza. 62.990.000
**ALDE ZAHARRA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trastelekua. 45.990.000
**HIRIGUNEA** Autonomia kalea. Azkenekoa. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. 46.500.000
**HIRIGUNEA** Arrasate kalea. Azkenekoa terrazarekin. Kalera begira. Igogailua. 56.950.000
**ANTIGUA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Ikuspegi ederrak. 41.950.000
**EGIA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. Trastelekua. 36.990.000
**EGIA** 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. Igogailua. 46.500.000
**GROS** itsasora eta hondartzara begira. Apartamentua. Oso polita. 52.500.000
**MARTUTENE** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. Sartzeko moduan. 29.500.000
**LOIOLA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. Berritua. 43.500.000
**LEZO** txaleta. 3 solairu. Garajea. Lorategia. Herriaren erdian. Polita. 94.850.000
**SAN JUAN** Berria. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Garajea. Trastelekua. Igogailua. 39.800.000
**HONDARRIBIA** Polita. 2 logela. Kanpora begira. Alde Zaharrean. 35.300.000

---

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 m$^2$, ondo.
- Arrizuri, 97 m$^2$, garajearekin.
- Matxiategi, 65 m$^2$, berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 m$^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 70 m$^2$, oso ondo.
- Bolu, 103 m$^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m$^2$, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai 81 m$^2$, berria, eguzkitsua, garajearekin.
- Aranerreka, 87 m$^2$, oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 m$^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 m$^2$, eraikuntza berria.
- Martoko, 87 m$^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m$^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 m$^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m$^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m$^2$, berritzeko.
- Zabalotegi 80 m$^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m$^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artzamendi 80 m$^2$, 2 terrazekin 60+30 m$^2$, eguzkitsua.
- Matxiategi, 73 m$^2$, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m$^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 m$^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m$^2$, berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m$^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m$^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m$^2$, oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan eta Martokon.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m$^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 m$^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 m$^2$, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m$^2$, erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m$^2$, ia berria.

---

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Zabalotegi 80 m$^2$. Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 m$^2$. Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 m$^2$. Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m$^2$. Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 m$^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m$^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 m$^2$. Berritua.
- Aranerreka, 95 m$^2$, oso ondo.
- Masterreka. 46 m$^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m$^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m$^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m$^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 m$^2$. Ganbararekin.
- Artekale 62 m$^2$. Berritua.
- Zubiaurre 58 m$^2$. Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 m$^2$. Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m$^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 m$^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m2. Berritua.
- Zubiaurre 55 m2. Berritua. 114.192 €.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m$^2$. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 150. 253 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m$^2$. Berritua.
- San Roke 80 m$^2$. 80 m$^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m$^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

# Baita zu ere.

**Zu ere GOIENKARIA irakurtzen ari zara.**
Zuk eta beste 39.000 lagunek baino gehiagok irakurtzen dute astero, CIESek emandako datu berrien arabera.
Eskerrik asko, irakurle guztioi.

**> GOIENKARIA da Debagoienean gehien irakurtzen den hedabidea.**
**> Debagoiendarren %63k astero irakurtzen dute GOIENKARIA.**




Goienkaria

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 4 | 5 | | 9 | 2 | | 6 | |
| | | | | | | | | |
| 3 | | 8 | 4 | | | | | 7 |
| | 7 | | | 3 | | | 8 | |
| | 9 | | | | | | 1 | |
| | 6 | | | 1 | | | 5 | |
| 4 | | | | | 5 | 3 | | 2 |
| | | | | | | | | |
| | 5 | | 1 | 7 | | 6 | 4 | |

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



Osagile
Muina
Xurgatua
Dei egin
Ez egunaz
Bi gehi bi
Ni
Sexu emea
Errenteria
* Irudiko mendia
Jakintsua
Distiratsu
Kontsonantea
Pl., hizki bat
Amerikako estatua
Aldi, aro
Ukapen
Listu, tu
Ez eme
Sodioa
Gainontzeko
Zelaiak
Nitrogenoa

GOIENKARIA

## hieroglifoa

Nafarroa Behereko harria.



LA

## hizki salda

Ibarreko 6 futbol zelai

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| B | A | R | I | M | U | T | Z | A |
| Z | A | I | P | O | U | N | Z | Z |
| I | A | R | B | J | I | T | Z | K |
| P | E | S | T | A | L | A | A | O |
| I | H | K | G | T | R | P | T | A |
| N | S | R | O | E | U | R | N | G |
| T | U | R | I | G | N | T | A | A |
| Z | N | M | I | I | L | T | P | I |
| A | G | O | R | R | O | S | I | N |

## soluzioak





**Hieroglifoa:**
Ubarla

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | 4 | 5 | 3 | 9 | 2 | 8 | 6 | 1 |
| 9 | 2 | 6 | 7 | 8 | 1 | 5 | 3 | 4 |
| 3 | 1 | 8 | 4 | 5 | 6 | 9 | 2 | 7 |
| 1 | 7 | 4 | 5 | 3 | 9 | 2 | 8 | 6 |
| 5 | 9 | 2 | 6 | 4 | 8 | 7 | 1 | 3 |
| 8 | 6 | 3 | 2 | 1 | 7 | 4 | 5 | 9 |
| 4 | 8 | 1 | 9 | 6 | 5 | 3 | 7 | 2 |
| 6 | 3 | 7 | 8 | 2 | 4 | 1 | 9 | 5 |
| 2 | 5 | 9 | 1 | 7 | 3 | 6 | 4 | 8 |



## asteko horoskopoa

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Zure nagusia, Eskorpiotik pasatuko da, eta horren eraginez, zure lan eta ekonomia kontuak bikain ibiliko dira. Alboratuta zenituen egitasmoak bizkortu egingo dira.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Aspalditik egin beharreko zerbait duzula, edo ekintza berri interesgarriak sortzen zaizkizula... kontua da lanak denbora hartuko dizula.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Zure zortea erabat aldatuko da. Zure buruarengan segurtasuna berreskuratuko duzu, eta lan edo diru planak egiteko une ezin egokiagoa izango duzu.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Ilargia Acuariotik pasa da. Horregatik, bakebakean egon zara. Saia zaitez goxotasun hori familiari eta lagunei igortzen. Une txarra inbertsioak egiteko.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Bakarkako arrakasta profesionala lortzea besterik ez duzu gogoan. Hori dela eta, ez zara konturatzen ingurukoek zure ideiak eurekin banatzea nahi dutela.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Antolatu zeure burua, eta denbora ondo banatu. Lanean hainbat ezusteko izango dituzu, eta ahal duzun guztia eskaini beharko diezu.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Oraingo astean oso oldarkor jokatuko duzu; hori dela eta, hainbatek eskatuko dizkizute azalpenak, eta argi utziko dizute beraien lekua zein den zure lagun taldean.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Arazoak izango dituzu lanean; eta hortik kanpo, ahalegin zaitez alkohol askorik ez hartzen eta drogarik ez kontsumitzen, osterantzean, oso kaltegarri izan daiteke-eta.

**SAGITARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Ohi baino zoriontsuago ibiliko zara, espero ez zenuen diru estra bat kobratuko duzueta; baina zure gastatzeko grinak arazoak ekarriko dizkizu hil amaierara heltzeko.

**CAPRICORNIUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Ahalegindu zaitez hain gogorra ez izaten hurbilekoekin; bestela, miretsi duzun norbaiten adiskidetasuna gal zenezake uste baino lehenago.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Gau zoragarriak pasatuko dituzu familiakoekin, eta ahalegina egin hain gogorra ez izateko; bestela, ezingo dituzu esperotako aldaketak egin.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Bikotekide egonkorra badaukazu, eten egingo duzu harremana, aspalditik gorputzak eskatzen zizun aldaketa egin behar duzulako. Sasoi berria heldu da.

## gazte zerbitzua

**BEKAK**

**> Frantsesa edo Alemaniera.** Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioa. Atzerrian egonaldia egin eta frantseseko edo alemanierako ikastaro bat egiteko 1.300 euroko laguntza. Informazio gehiago. *http://www.mepsyd.es/educación* Epea: martxoaren 30a.

**LANA**

**> Obra eta Zerbitzuak mantentzeko peoi.** Bergarako Udala. Epea: Otsailaren 26a.

**> Gizarte-laguntzaile bat.** Bergarako Udala. Epea: Otsailaren 27a.

**> Hiru udaltzain.** Urretxuko Udala. Hiru udaltzain-lanpostu betetzeko oposizio-lehiaketa Urretxuko Udalean. Epea: Martxoaren 9a

**> Begiraleak.** Mondragon Lingua. Begiraleak behar dira Mondragon Linguak 7-14 urte bitarteko haurrentzat uztailean antolatzen dituen ingeleseko udalekuetarako. Epea: Martxoaren 12a.

**EKINTZAK**

**> Stiff Little Fingers + Afonía kontzertuan.** Martxoak 11, 20:30ean, Gasteszenan (Donostia). Sarrerak doan! Bina sarrerako bost sari ditugu! Sarrerak lortzea oso erraza da. Tel.: 900 11 01 11.

**> "The Australian Pink Floyd Show" Donostian.** Donostia Kultura. Pink Floyden bi ordutik gorako zuzenekoa, "The Wall" barne. Martxoaren 9a, Donostiako Antonio Elorza Belodromoan, 20:00etan.

**LEHIAKETAK**

**> Ziberkomikien Lehiaketa.** Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiko; Kultura eta Euskara Departamentuen eskutik. Gipuzkoako Lehen Hezkuntzako 5. edo 6. mailako eta DBHko 1.ziklokо ikasleentzat. Parte hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkez dezake. Epea: Apirilaren 30a.

gazte informazioa

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

### Astelehena, 23



**> Agurne Barruso elkarrizketatuko du Zeberiok**
**19:45**

Ezker Abertzalearen izenean, Agurne Barruso elkarrizketatuko dute Zeberiok eta Aranak gaurko *Magazinea*-n.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Erlo klip.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Itsasoari begira Patxi Iribar, arrantzalea.
**15:45** Erreportajea.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Wasemak
**18:15** Musikantoi
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Golb tb.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Erreportajea.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 24



**> Igor Gonzalez de Galdeano 'Ilunpean' saioan**
**20:45**

Igor Gonzalez de Galdeano txirrindulari ohia elkarrizketatuko du Jon Berezibar kazetariak martitzenean *Ilunpean* saioan.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ikusten: Joaldunen eguna.
**14:15** Eltze beroa: Hiru zopa hotz.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Solaskide.
**16:20** Erloklip.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Erreportajea.
**18:05** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Wazemak.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean: Igor Gonzalez de galdeano
**23:00** Mugaz kanpo: Eskandinabia.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 25



**> PSE-EEko Jesus Egiguren 'Goiena magazinea'-n**
**19:45**

Eguaztenean Alderdi Sozialistako Jesus Egiguren elkarrizketatuko dute Goiatz Aranak eta Larraitz Zeberiok.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ikusmira.
**14:15** Gure saltsan
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Golb tb.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Solaskide.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Zaharrak berri.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea: Arantzazuko santutegia
**22:45** Euskal herria lau haizetara.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguena, 26



**> Euskal musika taldeak protagonista**
**20:45**

*Musikantoi* musika saioan askotariko estiloko euskal taldeak izango dira protagonista eguenetan Maider Arregiren eskutik.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Euskal herria lau haizetara.
**14:15** Eltze beroa:Limoi tarta.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ikusmira.
**15:45** Ikuskizuna.
**16:15** Zaharrak berri.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Musikantoi.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Berbaire.
**23:15** Erreportajea:
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 27



**> EAJko Joseba Egibar, egubakoitzean**
**19:45**

Egubakoitzean EAJren txanda izango da; hala, Joseba Egibarrekin egingo dute solasaldia Zeberiok eta Aranak.

**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Gure saltsan.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Musikantoi.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> Gatibu eta *Lur Sagar* dantza ikuskizuna ikustera joateko sarrerak**
10:30

Egubakoitzean, Gatibu talde gernikarra izango da 3.60 aretoa musikaz janzten. Bestalde, zapatuan dantzarekin jantziko du Amaia Antzokiko agertokia, *Lur Sagar* dantza ikuskizunarekin. Bada, bi ekitaldi horietara gonbidatu gura ditu Arrasate Irratiak entzuleak, sarrerak zozketatuta.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Zaharrak Berri (pertsona nagusiendako)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## telealbisteak

**TELEBISTA** > BUKAERA POLEMIKOA

# Living TV telebista kateak Jade Goodyren ezkontza eta heriotza grabatuko ditu

Indiako 'Gran Hermano' saioan zuzenean jakin zuen minbizia zuela eta orain ezkontzako eta heriotzako eskubideak saldu egingo ditu

**MIREN ARREGI** > ARRASATE

Erresuma Batuko eta Indiako *Gran Hermano* realityetan parte hartu zuen Jade Goody britainiarrak bere ezkontza eta heriotza salduko dituela eman dute aditzera hainbat komunikabidek. Jade Goodyri medikuak zuzenean eman zion aditzera Indiako *Gran Hermano* realityan parte hartzen zegoela, zerbikaletako minbizia zuela. 2008ko abuztua zen orduan; eta orain, aste gutxitako bizitza gelditzen zaiola esan diote medikuek.

Hala, realityan egon izanaren ospea aprobetxatuz, Goody bere mutil lagunarekin ezkonduko da eta ezkontzaren eta heriotzaren eskubideak salduko ditu. Living TV izango da ezkontza grabatuko duena eta martxoaren erdi inguruan eskainiko dutela aurreikusten da. *OK* aldizkariaren esanetan, ia 800.000 euro irabaziko ditu ezkontzako argazkiengatik; horri, irudiengatik eta heriotzagatik jasoko duena gehitu behar zaio.Haren seme-alabak izango dira diru hori jasoko dutenak.

**ORDEZKARIAK EZETZ DIO**

Goodyren ordezkariak jakitera eman du, ezkontza baietz, baina heriotza ez duela salduko.

> TELEBISTA

### 'Muchachada Nui' arrakasta handiz itzuli da telebistara, gaueko saio ikusiena izan zelarik

La 2 telebista katea aspalditik ari da apustu egiten *Muchachada Nui* umorezko saioagatik. Izan ere, denbora luzea da La 2 kateak Joaquin Reyes eta haren lankideen saioa eskaintzen duela. Orain arte, baina, goizeko ordu txikitan izaten zen saio hori ikusteko aukera; eta orain, asko ez bada ere, aurreratu egin du La 2-ek *Muchachada Nui* eskaintzeko ordua.

Hala, joan den eguaztenean hasi ziren berriz ere saioa eskaintzen eta espero ez zen arrakasta lortu zuen gainera. Oraindik ere gauerdian eskaintzen badute ere, eguazteneko saiorik ikusienetariko bat izan zen . Zentzugabekeriez eta surrealismoz betetako saioa da, baina berehala bereganatzen du ikuslea.

> TELEBISTA

### Antena 3k irabaziak banatuko ditu akziodunen artean eta Prisa burtsan hondoratu da

Hasi dira Espainiako telebista kateak ere krisiaren eragina igartzen. Antena 3 taldeak, esaterako, %54,5ean jaitsi ditu irabaziak urte hasieratik ona, iazko denbora tarte berdinarekin alderatuz. Hori horrela, Antena 3ko Administrazio kontseiluak Akziodunen Batzar Orokorrari proposatu dio 2008ko irabaziak akziodunen artean banatzea.

Bestetik, Prisa taldeak beste batzuen artean Cuatro telebista katearen jabe denak, hondoa jo zuen burtsan egubakoitzean, eguen gauean taldeko emaitza ekonomikoak jakitera eman ostean. Taldearen irabaziak %56,8 egin dute behera.

## zorion agurrak



ESKORIATZA
**Joxeba 'Eztabilondo'**
Otsailaren 16an, 25. Zorionak, KatxiBuru konpartsako akzionisten batzarraren izenian. Ja, ja, aurten ligauko dozu, ez preokupau! Egun ona pasau eta gorde Keler kaja bat guretako.



OÑATI
**Jone Iturrospe**
Otsailaren 18an, 11 urte betetzen ditu. Zorionak, potxola! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat, Uxueren eta bere familiaren partetik!



OÑATI
**Hodei Aiastui**
Otsailaren 18an, 16 urte betetzen ditu. Zorionak, Hodei! Ondo pasatu eguna, zure kuadrila eta entrenadorian partetik!



OÑATI
**Ander eta Maialen Altzelai Santa Cruz**
Anderrek otsailaren 18an, 5 urte eta Maialenek 22an, 3 urte. Zorionak, etxekoen partetik, eta patxo handi bi!



ARRASATE
**Nagore Sasiain eta Nerea de la Maza**
Otsailaren 19an, Nagorek 5 urte eta Nereak 4. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikiko lagunen partetik.



OÑATI
**Jone eta Ainhoa Arrazola Tatiegi**
Otsailaren 19an, 14 urte. Zorionak, pareja! Ondo-ondo pasatu zuen eguna, merezi duzue-eta. 14 patxo biondako! Zuen koadrilakoen partetik.



OÑATI
**Auritz Regueiro**
Otsailaren 19an, 2 urte bete zituen. Zorionak eta patxo handi bat!



BERGARA
**Ane Laskurain Arrese**
Otsailaren 20an, 10 urte. Zorionak eta urte askotarako! Jarraitu jator eta denon lagun, orain arte bezala. Hamar patxo, printzesa! Etxekoak.



OÑATI
**Maribi Arregi**
Otsailaren 20an, 66 urte. Zorionak, amama eta patxo handi bat. Bittor, Aitor, Magali eta Unai.



BERGARA
**Ariane Igartua**
Otsailaren 20an, 2 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekoen partetik!



OÑATI
**Enaitz Arregi Markuleta**
Otsailaren 20an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo handi-handi bat. Aitatxo, amatxo eta Haizea.



OÑATI
**Roberto Hernandez**
Otsailaren 21ean, 36 urte. Zorionak, aitatxo! Patxo handi bat. Txikiren eta amatxoren partetik.



BERGARA
**Leire Manso**
Otsailaren 21ean, 9 urte. Zorionak eta patxo handi bat. Familiaren partetik.



ARETXABALETA
**Ainhoa Zubillaga Garcia**
Otsailaren 22an, urtebete. Zorionak, marisorgintxo! Amama, aitaita eta izebaren partetik.



ARRASATE
**Markel Aranburuzabala Kortabarria**
Otsailaren 22an, urtebete. Zorionak zure lehenengo urtebetetzean! Etxekoen partetik zorionak eta patxo handi-handi bat!



OÑATI
**Igor eta Ainhoa Mugarza**
Otsailaren 22an, 6 urte. Zorionak, bikote. Eta patxo handi bat zuen familiaren partetik.



OÑATI
**Gorka Mondragon**
Otsailaren 22an, 16 urte betetzen ditu. Zorionak, Mondra! Espero dot oso ondo pasaittia zure eguna eta asko disfrutaittia inguru-kuekin. Patxo handi bat!



ARETXABALETA
**Aimar Diez Castro**
Otsailaren 23an, 2 urte betetzen ditu. Zorionak Maialenen partetik eta patxo handi bat, potxolo!



ARRASATE
**Garazi Agirre Osinaga**
Otsailaren 23an, 4 urte betetzen ditu. Zorionak, maittia! Oso ondo pasatu zure laugarren urtebetetze egunean. Patxo handi bat familixan partetik.



ARRASATE
**Lander Agirre Osinaga**
Otsailaren 23an, 4 urte betetzen ditu. Zorionak, pottolo! Disfrutatu zure urtebetetze eguna. Patxo asko familixan partetik.



ESKORIATZA
**Lide Crespo Zuazua**
Otsailaren 23an, 9 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko danon partetik.



OÑATI
**Maider Ribera**
Otsailaren 23an, 16 urte betetzen ditu. Zorionak, *wapixima*! Ondo pasatu zure eguna! 16 belarri tirakada eta patxo. Kuadrilakuan partetik.



OÑATI
**Miren Aranburu eta Itziar Zelaia**
Otsailaren 23an, 18 urte betetzen dituzte. Zorionak, bikote! Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze eguna, 18 urte eztiala egunero beteten! Eta juerga on batekin borobildu! Kuadrilakuen partetik!



OÑATI
**Tamara La Fuente**
Ondo zaindu zure burua. Faltan izango zaitugu. Copreciko goiko eta beheko pisuak. Copreci Mexiko, Txina...



ARRASATE
**Aimar Gomez Martins**
Otsailaren 23an, 4 urte betetzen ditu. Izeba, osaba, amama, amatxo eta Ibanen partetik zorionak eta oso ondo pasatu.



ARRASATE
**Urko Perez**
Otsailaren 23an, 5 urte betetzen ditu. Etxekoen partetik, patxo bat!



OÑATI
**Leire Amundarain**
Otsailaren 24an, 8 urte betetzen ditu. Zorionak, printzesa! Etxeko guztien partetik patxo handi bat.



ARETXABALETA
**Aner Zugasti Herrera**
Otsailaren 25ean, 3 urte betetzen ditu. Zorionak eta patxo handi bat zure familiakoen partetik.



BERGARA
**Beñat Askargorta Aranzabal**
Otsailaren 26an, 2 urte betetzen ditu. Zorionak, ganberro! Patxo handi-handi bat etxekoen eta batez ere, Jokinen partetik. Muaa!



ARRASATE
**Dorita Diaz**
Otsailaren 26an urtebetetzea. Zorionak amama! Naroa eta Ibai.



ARETXABALETA
**Amaia Ribera Montoya**
Otsailaren 26an, 6 urte betetzen ditu. Zorionak! Oso ondo ospatu zure eguna. Muxu eta besarkada handi bat Iratiren partetik.



OÑATI
**Roberto Maiztegi Rigault**
Otsailaren 27an, 38 urte betetzen ditu. Zure arreba Patyren partetik, zorionak bihotzez.



BERGARA
**Mikel Edroso**
Otsailaren 28an, 12 urte betetzen ditu. Zorionak! Egun ona pasatu eta patxo handi bat gurasoen partetik eta bereziki Mariaren partetik.



BERGARA
**Aitor Anton Serrano**
Otsailaren 28an, urtebete. Zorionak eta egun zoriontsua pasa dezazula. Zure familiaren partetik.



OÑATI
**Ibai Garai Murua**
Martxoaren 1ean, 16 urte betetzen ditu Zorionak, Poooo! Ondo pasatu eta ahal doken juergaik haundixena bota zure kuadrilian partetik.



OÑATI
**Alazne Irazabal Kortabarria**
Martxoaren 16an urtebetetzea. Zorionak, *guapixima*! Ondo-ondo pasatu eguna eta disfrutatu topera, zuk merezi duzueta! Patxo handi-handi bat, etxeko guztion partetik.



ELGETA
**Iban Arantzabal**
Otsailaren 21ean urtebetetzea. Ondo aprobetxatu al dozu zure ezkonbako azken urtebetetzia? Zorionak lankideen partetik.



BERGARA
**Gotzon Arzelus**
Martxoak 1ean, urtebetetzea. Saiolaneko sorginek zure falta sumatzen dute. Bidali esemese bat noizean behin!

## kuxkuxeroa



Jon Berezibar

# Utzi dezagun aurtengoz hirukoak goberna dezala Debagoienean

Aratusteak norberaren onena ateratzen duten moduan, hauteskunde kanpainak txarrena atera ohi du. Bietan mozorroa nahitaezkoa da, baina gizon bizardunek jantzi ohi dituzten plastikozko titi pareak sinesgarriagoak dira kasu honetan. Kanpainan gaude eta Aratusteak dira... merkeegia litzateke konparazio demagogikoa egitea. Oraingoan arin eta argi ibili direnak jeltzaleen kanpaina arduradunak izan dira. Efektu kolpe apartekoa izan da **Ibarretxe Spock**ez jantzitako alderdikideez inguratuta agertzea. Bikaina. Sozialistak saiatu dira kanpaina honetan freskoenak eta modernoenak izaten. Uste zuten Facebooken amua zabalduta 2.0 esoterikoarekin nahikoa zutela moderno itxura hartzeko. Umoreak mezuak salgarriago eta sarkorrago egiten ditu, horra publizitatearen maximetako bat. Eta hara non eta koadrodun alkandoren eta sorbalda bueltako jertseen alderdiak umorearekin eta freskotasunarekin egurra eman dion **Patxi eta koadrilari**. Gatozen baina *Debagoiena Galaxia*ra Spocki datorren domekara arte agur esanda.

**Laster aldarrikatuko dugu "geurean" dagoela Inauterietako hiriburua**

Alderdien arteko borroka hemen herrien artekoa dugu, nor baino nor, zeinek inauteri hobenak egin. Gurean Aretxabaleta izan dugu urteetan boterean izan duguna baina mondragoetarren kanpaina gogorrak emaitzak eman eta Portailora eroan dute *Carnal*en tronua. Hautagaitza aurten aurkeztu eta indartsu datozenak bergararrak dira. Karroza onenak, tradizioa aldeko, Aretxabaletan ikusi ditugu baina giroa, jendetza eta eromena Arrasatekoa izan da. Bergararrak ere gogotsu jardun dute oraingo honetan. Hiruko bat eratuz gero? Debagoiendarrak nolakoak garen jakinda laster aldarrikatuko dugu "geurean" dagoela Inauterietako hiriburua. EH-ko laugarrena?

## asteburuko albuma




**Kontzertua Antzuolan.** Egubakoitz gauean Mox tabernan kontzertua izan zen. Los viernes al ron-ek jardun zuen lehenengo, *Pepi*-k gitarra lagun bakarlari moduan eskaini zituen bere abestiak. Bakarkakoari taldeak hartu zion lekukoa. Zumarragako eta Antzuolako musikariek osatzen dute Klakson taldea eta kontzertua entzuten ere herritarrak izan ziren. Lehen aldia da Los viernes al ron-ek eta Klaksonek elkarrekin kontzertua egiten dutena eta Mox tabernan lagun giroan entzun ahal izan ziren euren doinuak.



**Arabako bertsolari txapelketa.** Manex Agirre aramaioarrak irabazi zuen atzo, Arabako Bertso Txapelketako lehen kanporaketa Amurrion eta finalerditarako txartela lortu du . Zigor Enbeita, Juan Mari Juaristi, Ruben Sanchez, Serapio Lopez eta Felipe Zelaieta izan zituen kantu lagun eta Lierni Altuna, aramaioarra hau ere, gidari. na aritu zen gidari lanetan. Argazkian, agurra kantatzen mozorroz jantzita; ezkerretik lehena Manex Agirre.

## jaiotakoak



**Noa Laiseka Leturia**
Arrasate > 3,850 kilo. Otsailaren 18an. Gurasoak: Ainhitze (Arrasate) eta Gorka (Arrasate). Argazkian, Noa jaioberria, amarekin.



**Nahia Corral Aceiton**
Arrasate > 3,010 kilo. Otsailaren 18an. Gurasoak: Yolanda (Arrasate) eta Iban (Arrasate). Argazkian, Nahia jaioberria, aitarekin.



**Lander Portalo Olmo**
Arrasate > 2,930 kilo. Otsailaren 16an. Gurasoak: Maria (Arrasate) eta Emilio (Arrasate). Argazkian, Lander jaioberria, aitarekin.



**Iker Perez Marzan**
Antzuola > 3,750 kilo. Otsailaren 19an. Gurasoak: Cristina (Antzuola) eta Diego (Antzuola). Argazkian, Iker jaioberria, amarekin.



**Gorka Menor Ezenarro**
Bergara > 4,260 kilo. Otsailaren 15ean. Gurasoak: Eneida (Bergara) eta Genaro (Bergara). Argazkian, Gorka jaioberria, aitarekin.



**Camila Bonilla Manrique**
Arrasate > 3,360 kilo. Otsailaren 17an. Gurasoak: Victoria (Colombia) eta Luis Dairo (Colombia). Argazkian, Camila jaioberria, amarekin.



**Doltza Lizarriturri Etxenausia**
Aretxabaleta > 3,400 kilo. Otsailaren 16an. Gurasoak: Olaia (Aretxabaleta) eta Asier (Zarautz). Argazkian, Doltza jaioberria, lotan.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua
Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2009-02-23

**Mikel Gonzalez** > Realeko jokalaria

# "Betiko lagunei eusteak garrantzia du niretzat"

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

**Txuri-urdinen gorabeherak gorabehera, Donostiako taldearen defentsak behintzat zaleen uste ona dauka. Gonzalezek zerikusi handia du horretan. Arrasateko jokalari gazteak aurkariaren aurrean bezain lasai erantzun die gure galderei.**

***Mister*-arekin ondo moldatzen zarela diozu. Baita lehenarekin, Marcelinorekin?**

[kar, kar, kar] Berekin hasi nintzen kalean Cucurrusitos taldearekin, hark *deskubritu* ninduen. Garai oso polita izan zen.

**Hori txikitan zen, orain ezaguna zaitugu eta sarean fotologa eta guzti egin dizute.**

Polita da eta eskertzen diet niri dedikatutako denbora hori. Ezagutzen ditut eta entrenamenduetara-eta etortzen dira, eta animu asko ematen didate.

**Haurrekin ere egon zara orain gutxi ikastolan. Batek galdetu zizun ea zergatik zineten futbol jokalariak hain guapoak.**

Bai, egia da. Grazia egin zidan. Eñaut Zurikarai eta Jon Ansotegirekin joan nintzen. Esan nien hirurek batera ere ez genuela guapo bat bakarra egiten.

**Agian jokalariak ez, baina haien neskak bai. Jokalaririk ez dago besotik neska eder bat ez daramanik.**

Baliteke, baina ez du zertan. Niri nirea behintzat munduko ederrena iruditzen zait [barre].

**Nola gogoratzen duzu lehen mailan egin zenuen debuta?**

Oso txarra izan zen, Mallorcaren aurkakoa eta bost gol sartu zizkiguten. Gero, atzera Sansera itzuli nintzen eta baliagarria suertatu zitzaidan, asko ikasi nuen-eta lehen mailara itzuli aurretik.

**Mus partidatxo bat?**

Noski. Astelehenerokoa lagunekin tabernan ez dut barkatzen. Izugarri gustatzen zait. Oso garrantzitsua da niretzat betiko lagunei eta harremanei eustea.

**Eta baxua, zoko baten hautsa hartzen ahaztua duzu?**

Garai baten jo nuen, baina utzia daukat, lagun arteko kontua izan zen, sekula ez genuen jende aurrean jo.

**Eta Never Surrenderren txapa beti agerian.**

Gaur ez dut ekarri, baina hala da. Lagunak dira eta oso onak. Asko gustatzen zait musika.

**Zerbaitegatik deitzen zizuten 'Conci' aldagaletan.**

Bai, orain guztiendako *Gontxa* naiz, baina lehen, beheko mailan, *Conci* esaten zidaten taldekideek garai baten.

### TEST-A

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 23 urte. **Postua:** Atzelaria. **Futbolari *mediatikoa*?:** Ez dut gustukoegi futbolarien irudi hori. Hedabideak nirekin ondo portatzen dira eta nik ere ez dut arazorik. **Zaletasunak:** Astelehenero mus partidatxoa eta musika. **Estilo bat?:** Punka eta oi!-a. **Zelaian bare ala bero?:** Normalean lasai, baina beroaldi ederrak hartutakoa naiz. Kontrolatzen jakin beharra dago. **Idolo bat?:** Ezta bat ere. Ez naiz fijatzekoa.



**ATEA** Defentsa lanetan fin ibili izanagatik nabarmendu dute sarri. JON BEREZIBAR

## ai, ene!



### Sardexka eta labana

Iraganean erabilera askotako labanak jarri ziren modan, baina joera da ahalik eta erreminta txikiagoak ibiltzea. Hala, patata tortilla edo pizza mozteko sardexka eta labana, biak, batzen dituen aparailua asmatu berri dute.

http://www.sarda.es

## biharamuna

**Iñigo Biain**

### Injustizia betekadak

Nik uste nuen gu arautzen gaituen kode penalak ez zuela onartzen pertsona bat delitu berarengatik behin baino gehiagotan epaitua izatea. Ba ez, oso oker nengoen: Oñatiko plaza, jendetza handia epaia entzuteko zain, amorruz betetako hitzak epaimahai zorrotz baten ahotan, eta "bandidoa" bere amaieraren zain. Ni ikastolako mutil koxkor bat nintzela gogoan dut gizagaixoa San Lorentzoko kanpo-futboleko porterian zintzilik, guk oso ondo ulertzen ez genuen erritu baten biktima isila. Urtero deklaratu behar al duzue **Miel Otxin** errudun? Benga, enroilatu zaitezte eta hurrengo urtean errugabe deklara ezazue! Miel Otxinek aitzina egin omen zituen bere maltzurkeriak Lantz inguruko mendietan, **Zaldiko** bere zaldiaren laguntzarekin. Eta lapurretatxoak izan ziren, besterik ez! Horregatik ordaindu behar al du gizagaixoak zigorra, urtea joan eta urtea etorri? Gainera, gogoratu sistematikoki erruduntasun berediktuak ematean antsietate krisi larriak sor ditzakeela. Epaimahaiak Miel Otxin sutan erretzeko epaia eman baino ordu batzuk lehenago, **Baltasar Garzon** hala ingresatu omen zuten, justizia enpatxuak edo eragindako krisialdiak jota ...



## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +10 | +05 |

Giro goibela izango dugu, baliteke han-hemenka zirimiria egitea. Gaueko tenperatura igoko bada ere, egunekoa ia ez da aldatuko.

www.euskalmet.net




Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea KODEA

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

WEBGUNEAN www.smsoinu.com

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena | KODEA

1,2,3,4…Real!! | REAL
Alboka | ALBOKA
Athletic luep!! | IEUP
Buztan bertsoa | BERTSO
Hartu…Aitaren ta semea.. | AITAREN
Hartu…Ansar | ANSAR
Hartu…Argentinarra | ARGEN
Hartu…Mexikarra | MEXIKO
Hartu…Miamol! | MIAMOL
Independentzia! | INDEPEN
Irrintzia | IRRINTZI
Jotake irabazi arte! | JOTAKE
Milazu! (pilota) | MILAZU
Suprinua | SUPRINU
Tobera | TOBERA
Txalaparta | TXALA
Txanbela | TXANBERA
Txoootx | TXOTX

DEPOR.IZENA. ZENBAKIA
OSAUNA.IZENA. ZENBAKIA
BILBAO.IZENA. ZENBAKIA
REAL.IZENA. ZENBAKIA

LOGOAK (SMS 1)
KODEA



ANOETA1, MENDI2, BELAK, ZORI3, IKURRI3, POPATIK1, AIZKORAK, ADARIAK
ARCO, SADAR1, ZORI1, ZORI4, KALABERA1, POPATIK2, EGUZKILORE3, ELORAN
IPURUA, EIBARPOOL, TOPA, TITULUA, MUSKARIA, SATANAS, ARRANAK, IDIAK

OHARRAK

**1.BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: **www.smsoinu.com/bateragarri**
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.

**2. BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.

**3. ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: **smsoinu@smsoinu.com** / edo deitu **902 01 21 48** telefonora.

**4. PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.